

**Xabi
ETXENIKE**Euskadiko pisu
jaurtiketan txapeldun

→ 44

Ezkontza

Gehigarri berezia → 11-19

BARDOAK → 25Bi saio Igantzi eta Leitzan
hilaren 29 eta 30ean**ARESO → 35**Auzolanaren inguruko
iritzia bilduko du Udalak**BOZAK → 40-42**Azkaine, Sara eta
Senpereko zerrendak**SARA → 45**Sara Korrika Trail
martxoaren 30ean

Elkartasun keinu gehiago Enaitzi laguntzeko



ERREPORTAJEA → 4-5

Enaitzek bortz urte beteko ditu martxoaren 31n eta garun paralisia du. Gaixotasunaren ondorioz, ez da jarrita bakarrik egoten, ez da ibiltzen, ez da solasten eta ikusmen urritasuna du. Behar aunitz ditu eta ekonomikoki laguntzeko hainbat ekimen solidario antolatu dituzte. Beran, adibidez, *Enaitz gara* guraso taldeak kamisetak eta boletoak paratu ditu salgai herriko merkatarien laguntzaz osatu dituzten hamar saski zozketatzeko. Ekainaren 7an egingen dute zozketa.

**GIZARTEA → 38****Sahararen alde
Elkartasun
Eguna egingen da
martxoaren 29an
Oronoz-Mugairin****GIZARTEA → 10**

Lagun-Bide
Zerbitzuak enpre-
sa sozial eta soli-
darioa aurkeztu du
Bidelagunek eta,
bertzeak bertze,
bigarren eskuko
arropa biltzeko 15
edukiontzia jarriko
dituzte eskualdean

LEITZA → 34**‘Utzi pakean
Leitza, diztela’
lelopean mani-
festazioa egingen
dute hilaren 29an****ZOZKETAK → 52**

Marga ERDOZAIN | Doneztebeko IKA euskaltegiko irakaslea

«Nafarroako Gobernuaren erasoen aitzinean euskaldunok aski dela erran behar dugu»

Gurea, *Lingua Navarrorum*-a. Euskaraz bizi nahi dugu! lelopean manifestazioa deitu dute hainbat eragilek martxoaren 22rako. Iruñeko Antoniutti parketik abiatuko da, 17:30ean. Deitzaileen artean daude azken urte eta erdian Gobernuaren diru-laguntzarik jaso ez duten euskaltegiak.

ELKARRIZKETA → 3

**ttipi txartela eginez gero 2 liburu opari**Txartela egiteko deitu
948 635 458 telefonora

DENOK DAKIZKIGUNAK

lactuGOGOETA

"Bertako produktuak erosita, hemengoentzat lana lortzen dugula jakin badakit"

"Horregatik esnea erosterakoan Lacturale aukeratzen dut, Nafar abeltzainen esnea"













www.lacturale.com

Nafar eta Etxearen Integratutako Zuzenbidea

Kategoria Gurea









bardoak

2014

nafarroako taldekako bertso ekimena

MARTXOAK 29, LARUNBATA
 Igantziko Biltoki elkartean
 21:00etan, bertso-afaria

ZORTZIKO HAUDEIA
 (Landa)
 Euseko Fernandez
 San Garre
 Jose Sanjurjo
 Maddalen Lopez

LEHENDAKUAK & TRAPIERDIN ITZALERA
 (Beltan)
 Oier Arriaga
 Jon Barrena
 Roke Plaza
 Xabier Nola

PREZIOA: 15€

MARTXOAK 30, IGANDEA
 Leitzako Atekabeltz gaztetxean
 18:00etan, bertso-merendua

MARTXOAK 30, IGANDEA
 Leitzako Atekabeltz gaztetxean
 18:00etan, bertso-merendua

HAZKARZAKAK
 (Beltan)
 Mikel Mari Etxepae "Luzer"
 Mikel Garre
 Jonan Harrege

12 OKARIO ETA 11 PEDRADA
 (Txantrea)
 Erika Laguna
 Mikel Barrena
 Sainza Alkorta
 Iñaki Mujika



Bertsozaleak



Itzi Itzi

Informazio gehiago bertsozale.com

WWW.BERTSOZALE.COM

Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko manifestazioa deitu dute hainbat eragilek martxoaren 22rako. Iruñeko Antoniutti parketik abiatuko da 17:30ean, *Gurea, Lingua*

Navarrorum-a. Euskaraz bizi nahi dugu! lelopean. Nafarroako Gobernuak euskal komunitatea desagerrarazi nahi duela adierazi dute eta hala, euskal komunitateari manifestazioan

parte hartzeko gonbitea luzatu diete. Deitzaileen artean daude euskaltegiak, eta manifestazioaz eta euskaltegien egoeraz aritu zaigu Marga Erdozain euskaltegiko irakaslea.

Marga ERDOZAIN | Doneztebeko IKAko irakaslea

«Lotsarik gabe Gobernuak euskal komunitatea mutu utzi nahi du»

G. PIKABEA | DONEZTEBE

Euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko manifestaziorako deia egin dute. Zergatik?

Aski delako. Nafarroako Gobernuak euskara babestu, normalizatu beharrean trabak eta erasoez betetako kanpaina martxan abiatu du. Euskaldunok eta euskaltzaleok horren aitzinean aski dela erran behar diogu Gobernuari. Nafarrak gara eta dagozkigun eskubideak ukatzen ari zaizkigu, hau ez da inon ere pasatzen. **Gobernuaren erabakietan euskarari dion amorrua argi ikusten zaiola diote manifestazioaren deitzaileek. Azaldu...**

Hagitz ongi antolatutako eraso baten aitzinean gaude eta salaketa eta mobilizazioen bidez gure amorrua ozenki adierazi behar dugu, indarrak batuz: euskaltegiok, D ereduko irakaskuntza, komunikabideak, udalerietako euskaraz zerbitzuak... Ezin gara euskaraz bizi, ezin dugu euskaraz telebista ikusi, gure komunikabideak itolarrian ditugu, gure euskaltegiak desagertzeko arriskuan dira, administrazioko arlo guztietan trabak ditugu... **Gobernuak euskal komunitatea mutu utzi nahi du?**

Bai, inongo lotsarik gabe. Barcinak Madril en egiten dituen adierazpenen oihartzunek horrela diote. D ereduaren kontrako kanpainarekin garbi ikusi



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Marga Erdozain Doneztebeko IKA euskaltegiko irakaslea da.

da, ingeleseko ereduak bultzatuta familiak nahasi nahi dituzte, D eredu kriminalizatu, kakaztu nahi dute... Euskaltegien kasuan diru-laguntzak ezabatuz eta ukatuz desagerrarazi nahi dituzte, gure egoera hagitz larria dela baitakite. Komunikabideak ere itotzen ari dira. Orain krisian oinarritzen dira neurri hauek ezartzeko, baina azken 10-12 urteotan estrategia hori jarraituz funtzionatu dute.

Euskaltegiak 2012ko urritik Gobernuaren laguntzarik gabe daude... Urte bat eta erdi daramagu diru-laguntzarik jaso gabe, nahiz eta aitortua izan. Lan burokratiko guzia eginarazi digute eta ez digute euro bat ere

MANIFESTAZIORAKO DEIA

«Euskal komunitate osoari dinamika sozial indartsua abian jartzeko dei egingen diet, euskaraz bizitzeko pausoak emanez. Pertsonak izanen gara aldaketa gakoak: euskara erabiliz bizitzaren arlo guztietan, espazioak euskaldunduz, euskara ikasiz, euskaldun bezala harro agertuz. Nonahi eta noiz-nahi, euskaraz».

EUSKALTEGIEI MURRIZKETAK

«Azken 12 urteotan %60ko murrizketa izan dugu, eta 2012tik hona ez dugu diru-laguntzarik jaso».

eman. Ofizialki ez digute inongo jakinarazpenik ailegarazi. Une honetan Nafarroako euskaltegien egoera larria da. Gure lan baldintzak izugarri okertu dira eta murrizketa anitz egin behar izan ditugu bizirauteko. Ikasle kopurua mantendu edo goitu denez, indarra ematen digu aitzinera jarraitzeko. Baina kezkatuak gaude, aurtengo aurrekontuetan diru partida sartua dago baina ez dakigu deus jaso dugu. Egoera politikoak horrela jarraituko balu zalantzan egon litezke 2014 eta 2015eko diru-laguntzak eta horrela hiru urtez nekez irauterik izanen genuke.

AEK eta IKA mobilizazioak egiten ari zarete...

Abenduan hasi ginen eta manifestazioaren ondortik jarraituko dugu Gobernuak gure dirua eman arte. Euskaltegiok Gobernuari dagokion funtzioa betetzen ari gara, euskara ikasi nahi duenari zerbitzua kalitatez eskaintzen diogu. Euskara ikasteko eskubidea legeak babestu du, baina administrazioak ez du eskubide hori bermatzen. Azken urteetan trabak, aitortza eza... bertzerik ez dugu jaso gobernutik.

Zein da eskualdeko mankomunitateen erantzuna?

Zorionez, mendialdeko euskaltegiok bertako mankomunitateen babesa dugu. Babesaz gain, gure lanaren aitortza eta beharrezkoa dugun diru-laguntza bermatzen digute. Euskaltegiaren egiten den lana estrategikotzat jotzen da. Mankomunitateen laguntzarik gabe ezin izanen genuke gure jarduera bermatu.

Zer deritzozu azken urteotako Nafarroako hizkuntza-politikari?

Zer hizkuntza-politika, ba al da? Une honetan itxuragabea da. Eraso hauen aitzinean benetako hizkuntza-politika eraginkorra aldarrikatzen dugu, horrek ekarriko baitu hizkuntzaren normalizazioa, eta horrek bermatuko du euskaldunon euskaraz bizitzeko nahia, Nafarroan luze-zabal guztian euskaraz bizitzeko gero eta indartsuago den nahi hau.

GIZARTEA → KANPAINA SOLIDARIOA

Berako Enaitzi laguntzeko elkartasun keinuek ez dute etenik

Enaitzek garun paralisia du eta horren ondorioz hainbat ezintasun ditu

Garun paralsiaren ondorioz, behar aunitz ditu Enaitzek eta ekonomikoki laguntzeko hainbat elkartasun ekimen antolatu dituzte. Enaitzen gela-ko gurasoek *Enaitz gara* taldea sortu eta ekitaldiz betetako maratona paratu dute abian.

G. PIKABEA

Garuneko lesio bat tarteko burmuineko zati bat kaltetua denean, orduan agertzen da garun paralisia. Gaitz honek eragin zuzena du mugimenduaren garapenean eta zenbaitetan adimen intelektualean ere bai. Eta garun paralisia da Berako Enaitzek duena, Nagore eta Iñigoren semeak. Haurdunaldia konplikatu eta 29. astean jaio zen 2009ko martxoaren 31n. 980 gramo pisatu zituen eta inkubagailuan zegoela 870 gramotara jeitsi zen. Bi hilabete pasatu zituen inkubagailuan, oxigeno falta larria ere izan zuen, baina aterazen aitzinera. «Emozio eta berri aunitz jaso genituen garai gogorak izan ziren, inori desio ez dizkiodanak». Horrelaxe oroitzen da garai haietaz Nagore Arretxea Enaitzen ama.

Geroztik, ordea, ia bortz urte pasatu dira eta tarte horretan aunitz ikasi dute. Enaitzek garun paralsiarekin ondorio larriak baditu ere, terapia bereziekin, errehabilitazio intentsiboekin, fisioterapia saioekin eta aparatu ortopedikoekin ber-ze mutiko bat da. «Horiek guztiak behar dituela» erran digu Nagorek, baina «orain momentu klabea da gorputzari ahalik eta etekin gehien ateratzeko. Hori dela eta,

gorputza ahalik eta gehien landuz gero, seguru-erik emaitza gehiago lortuko ditugu». Gailu ortopediko guztiak «prebentzio modura» erabiltzen dituela dio, «gorputza ahalik eta zuzenen mantendu ahal izateko».

Baina terapia, saio eta aparatuen gainetik dago Enaitzen irria, indarra eta lanerako gogoia: «aitzinerara ateratzeko eta borrokatzeko izaera sutua du. Bere burugogorkeriagatik eta bere borondategatik ez balitz, ez lituzke orain arte ikasi dituen gauza aunitz ikasiko», adierazi digu bere amak.

EGUNEROKOA

Eguna ongi hornitua izaten duela azaldu digu bere amak: «goizean ikastolara joan eta astean hirutan fisioa izaten du han. Fisioterapia saioa izaten ez duenean, gela-koekin jostatzen egoten da edota musikoterapia eta logopedia saioak izaten ditu. Ikastolan bazkal-tzen du eta 16:30ean ateratzen da. Arratsaldetan, astean bitan fisioterapia eta psikomotrizitate saioak izaten ditu. Bertzenaz, etxean ariketak egiten ditugu». Agenda bete, beraz, eta hori me-diku kontsultak kontuan hartu gabe.

KANPAINA SOLIDARIOAK

Garun paralsiak gas-tu aunitz sortzen ditu: fi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Enaitzek bortz urte beteko ditu martxoaren 31n.

DATUA

5

URTE

beteko ditu Enaitzek martxoaren 31n.

Beraz, lerro hauen bidez, aunitz urtez!

sioterapeutak direla, terapiak, aparatu ortopedikoak... Bada Enaitzi laguntzeko dirua biltzeko hainbat ekimen paratuak dira martxan. Joan den urtean, erraterako, plastikozko tapoiak biltzen hasi ziren eta ia es-

kualde osoan bildu dira. Enaitzen amak kontatu digunez, «Berako Labi-ga Ikastolak proposatu-tako proiektua izan zen. Aspalditik genuen ideia buruan bueltaka eta be-raien proposamenarekin aitzinera atera genuen». Balorazio «hagitz posi-ti-boa» egin du, «jendea-ren partehartzea eta la-guntza izugarria izan da eta gisa honetako kasu-ak gizarteratzeko auke-ra ederra da». Hala ere, onartu du «horrelako proiektuek denbora eta tapoiak gordetzeko es-pazio aunitz eskatzen du-tela eta gu alde horreta-tik nahiko eskas gabil-

tzala». Edozein moduz, sei-zazpi tona bildu di-tuzte dagoeneko.

Webgunea ere (www.enaitzlagundu.org) paratu dute martxan, bai-ta bankuko bi kontu ire-ki ere. Aunitzek plante-a-tu omen zioten hori, bai-na Nagoreren hitzetan, «gu irekitzeko ez ginel-a inor iruditzen zitzaigun. Norbaitek urrats hori eman nahi bazuen guk ez genuela arazorik iza-nen». Eta halaxe izan zen. Web orria bi lagunek egin zieten, eta horiek izan zi-ren bankuko kontuak ire-ki zizkietenak [Labora/Kutxa: 3035 0135 9413 5001 8710 eta La Caixa:

ENAITZEN AMAREKIN SOLASEAN

Nagore ARRETXEA | ENAITZEN AMA

«Bere bizitzeko gogoagatik ez balitz, gaur egun ez litzateke gurekin egonen»

2009ko martxoaren 31n jaio zen Enaitz. Eta geroztik pasatu diren bortsu urte hauek «errusiar mendi baten antzekoak» izan dira aitortu digu Nagore Arretxeak, Enaitzen ama: «egun batean gailurrean eta hurrengo egunean, berriz, burua altxatu ezinean aurkitu gara». Hasierako garaia izan omen ziren zailenak: «gehienbat lehenengo urtea erotzeko modukoa izan zen. Enaitz ez zegoela ongi ikusten genuen bai etxekoek eta bai medikuek ere eta proba aunitz egin behar izan zizkieten. Noraezean ibili ginen diagnostiko bat harrapatu arte». Azkenean gertatzen zenaz jabetu ziren: «emaitzak eman zizkigutenean eta arazoaren larritasunaz ohartu ginenean, hori dena barneratu eta onartu behar izan genuen», dio Nagorek, eta erran digunez, «agian hori izan zen pausorik gogorrena».

Ateak jotzea izan zen hurrengo urratsa: «Enaitzentzat onak izanen ziren terapiak informatu, fisioterapeutekin harremanetan jarri, antzeko beharrak dituzten familiekin harremanetan jarri...». Hainbat fundazio eta elkartetan sartuak daudela kontatu digu eta horrek «aunitz» laguntzen omen die: «horrela ohartzen baitzara ez zaizula zuri bakarrik pasatzen, antzeko kasuak badirela eta batez ere, gertatzen zaigunaz gure artean ulertzen garena. Ez baita berdina koadrilako lagun bati hau kontatzea edota pasatu duen norbaiti kontatzea».

Gogor eginez, giblean gelditu dira ezjakintasun eta hasierako momentu haiek. Gaur egun, badakite zein den Enaitzen egoe-



UTZITAKO ARGAZKIA

Nagore Arretxea Enaitz semea, baserritarrez jauntzita, besoetan duela.

ra: «ez da jarrita bakarrik egoten, ez da ibiltzen, ez da solasten, ikusmen urritasuna du...». Hori ezagututa, bizitza kalitatea hobetzea da orain erronka. Gainera, azken hiruzpalau urteetan, izaera ere onerako aldatu zaiola somatu du Nagorek: «orain dela hiruzpalau urterekin alderatuz, alai-alai da. Kontent bizi da eta hagitz langilea da». Are gehiago, «bere bizitzeko gogoagatik ez balitz, gaur egun ez litzatekeela gurekin egonen», adierazi digu amak. «Ikastolara joateko desiatzen egoten da, han bere lagunekin ezin hobeki pasatzen baitu. Bere gelakideek aunitz maite dute».

HASIERA

«Gehienbat lehenengo urtea erotzeko modukoa izan zen. Enaitz ez zegoela ongi ikusten genuen bai etxekoek eta bai medikuek ere eta proba aunitz egin behar izan zizkieten. Noraezean ibili ginen diagnostiko bat harrapatu arte».

ENAITZI LAGUNTZEKO

Berako merkatarien laguntzarekin 10 saski osatu dituzte zozketatzeko. Ekainaren 7an egingen dute zozketa eta dagoeneko boletok salgai daude.

2100 4705 1321 0018 6193]. Erantzuna ona izaten ari omen da: «jendea hagitz solidarioa izaten ari da».

Bertzelako ekintzak ere egin dira dirua biltzeko: Iturenen herri kirolak, ferietan postuak... «Jendea laguntzeko borondate handia erakusten ari da. Poz handia ematen digu, horrela Enaitzek terapia intentsibo gehiago eta pentsatuak ez genituen gailu ortopediko batzuk erosi ahal izanen ditugu».

Baina elkartasunak ez du etenik eta Labiaga

Ikastolako Enaitzen gelako gurasoek Enaitz gara ekimena sortu dute ekitaldiz betetako maratoi erraldoia egiteko. Kamisetak paratu dituzte salgai, baita boletok ere euro batean Berako merkatarien laguntzarekin osatutako hamar saski zozketatzeko. Ekainaren 1erako zinema antolatuta dute eta ekainaren 7an saskien zozketaz gain, haur eta nerabeentzako jarduerak izanen dira. Zehaztuak ez dauden egunetan, kontzertuak, pilota partidak, herri kirolak, antzerkiak... izanen dira.

Krisiak ez du elkartasunajo. Denen artean pizar bat egitea ez delako deus kostatzen eta pizar hori aunitz delako Enaitzek etorkizun hobea izan dezan. Izan ere, Nagorek dioen bezala, «malda haundiko bidea dugulako oraindik egiteko».

DIRUA BILTZEKO KANPAINA

Martxoaren 31ra arte bilduko dituzte plastikozko tapoiak

Birziklatze enpresaren fundamendu eskasagatik, martxoaren 31n plastikozko tapoiak biltzeari utziko diote Enaitzen senitartekoei. «Fundamentu eza hasieratik nabaritu genuen», azaldu digu Nagorek: «bidaltzen genuena kobratu ahal izateko, gibletik ibili behar izaten genuen». Tapoiak bidali zituzten azken aldian 400 kilo guttiago ordaindu zizkietela ere jakinarazi digu Enaitzen amak eta «lan karga handia zutenez, gehiago ez bidaltzeko erran zituzten».

Hala, hilabete honetako azken eguna, Enaitzen urtebetetze eguna, izanen da tapoiak biltzeko hondarreko eguna. Bitartean, hortxe izanen du nahi duen orok bere elkartasun keinua egiteko aukera.



UTZITAKO ARGAZKIA

Argazkian, bildutako tapoiak zakuetan sartuak.



Nire txanda
Beñardo GOIETXE

Gure altxorra II

Diotenez, milaka urte omen ditu erromatarrek "linguae navarrorum" deituriko honek. Dakigunez, X. mendekoak omen dira lehen esaldi idatziak eta 1545ean argitaratu omen zen lehen liburua. Geroztik, ederrak kostata iraun du bizirik, mendeetan barna izan baitira nola edo hala solas hau garbitzeko saiakera gordinak. Galarazia, zigortua, baztertua, gutxietsia, gaizki ikusia, ahantzazia izan da, baina hementxe da tente aski, aitzine- rat segitzeko gogo biziz, oraino, dakien frankok gutiegi erabili eta gaizki xamar zaintzen badu ere. Gure aitaxi-amatxien aitaxi-amatxiak ere halaxe mintzo ziren eta gurasoengandik hartu dugu gutako hainbatek; bertako, kanpoko edo kanpotik etorritakoen ondoko aunitzek, berriz, ahalegin handiz berreskuratu edo ikasi dute joan deneko 40 urteotan. Eta horretan segitzen dute, Nafarroa zahar honetan egoera arrunt zaila izanda ere, beti trabak jartzen eta gutxiesten dabilzan alajak egonik ere, martxoaren 22an gure hizkuntzan bizi nahi dugula aldarrikatu nahi dugu, geu ere nafarrak garelako eta gure mintzaira nafarrak, bederen, gaztelanien eskubide eta laguntza berberak behar dituelako.

Ezpala
Aitor AROTZENA

Zergatik negar egin?

Beti negarrez ari omen gara. Aitaxirekin edo alabarekin medikura goazela itzultzaile lanak doan egiten ditugu. Haurtzaindegiko zaindaria euskalduna nahi dugulako aurpegi arraroz begiratzen gaituzte. Paperen bat entregatzerakoan *Egunon* erran eta *Mandee?* jasotzen dugu erantzuntzat. Euskaraz ari garen komunikabideak mutu nahi gaituzte. Zeruan izarra dago, Iruña aldetik.

Nabarmentzekoak



Ander ERRANDONEA
Pilotari beratarra

Euskal Herriko klub arteko txapelketan, gazte mailako buruzburuko txapela irabazi du Bortzirak taldearekin. Martxoaren 7ko finalean 22-11 irabazi zion Lizarrako Mateori.



Jose Ramon SARRATEA
Suhiltzaile erretirata

Joan den urtean erretiratutako suhiltzaile almandoztarra omendu zuen Nafarroako Gobernuak martxoaren 7an, Nafarroako Larrialdi Agentziako bertz lankide ohi batzuekin batera.



Mari Carmen GANBOA
Esaldirik politena Donezteben

Emakumearen Eguna- ren inguruan esaldirik politena saritu du aurtentzen Doneztebarrak elkarteak. Mari Jose Ganboak idatzi zuen eta 100 euroko erosketa bonoa lortu zuen trukean.

Aztera begira → 2000-III-23 / LURRA 18. zk.



Gure itsasgizonen bizipenak ezagutzen

Idorrean sortuak izan arren, garai batean inguru hauetako jende aunitzek itsasoko bidea hartzen zuen sos batzuk irabazteko asmoz. Marinel zahar hoi- en istorioak bildu zituen *Lurra* aldizkariak duela 14 urte. Juanito Goia beratarrek 22 urte egin zituen itsasoan eta Salvador Elizondok 39. «Punta Sabinal itsasontziko tripulazioko 14 arrantzaletatik 10 beratarrek ginen» zioen honek. Garai hartan arrain lana kubiartan egiten omen zen. «Bakailua idekitzen ari zinela itsaso kolpe batek jo eta lurrera joaten zinen... Pentsatu ze hotza eginen zuen 20 kiloko bakailuak instantean hormatzen zirenerako» zioen.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konbi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Iruñe eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Herri kontzientzia

Xanti BEGIRISTAIN

Euskal Herria bezalako herri batek nazio bezala funtzionatzeko, bizi izateko eta existitzeko letra larriekin, lehenik eta behin behar duena da herri kontzientziaren sentimendu handi eta bizia. Herria esatean, jakina, bere pertsona, bere biztanle eta bere kideekin esan nahi dut.

Garai hauetan, ikusten ari garenean Eskozian eta Katalunian, Euskal Herrian baino aurreratuagoak daudela gai honetan, herri kontzientziaren alorrean, uste dut, hemen ere, gure nazioan, ahalegin berezia egin beharko dugula denok eta denek, herri kontzientzia sentimendu hori handitu eta sendotzeko. Gure herri hau eraikitzeke, nazio sentimendua areagotzea, funtsezko zutabea dugu zalantzarik gabe. Jakina da Euskal Herrian kanpotik etorritako jendea bizi dela eta beste pertsona batzuk iragaitzaz ibiliko direla. Horiengan aipatu dudan kontzientzia lortzea, argi dago zailagoa dela. Hemen gelditzen diren beren ondorengoengan jarri beharko dugu itxaropena, batez ere, pedagogia lan etengabe, luze eta egokia eginda.

Baina beste pertsona asko bizi gara hemen, Euskal Herrian bertan jaiotakoak, euskaldunak garenak eta euskal odola ere badugunak. Odola aipatzean, ez dut deus berezirik azpimarratu nahi, soil-soilik kontatazio hori, besterik gabe.

Hala eta guztiz ere, hau guztia honela izanda ere, ohartzen gara hemengo jende askok ez duela Euskal Herri sentimendu handirik, ez eta euskal nazio kontzientzia nabarmenik ere. Dena dela, neurri handi batean, hau ez zaigu oso-oso harrigarria gertatu behar, Euskal Herriko historia pixka bat ezagututa. Esate baterako, gogora dezagun, jadanik Iruñeko eta Nafarroako erresumen garaitik hona, Euskal Herriak zenbat konkista, aurre-konkista, birkonkista, kolonizazio, inposizio, debeku, doktrinamendu, galarazpen, zentsura, murrizpen, zatiketa eta abar, eta abar pairatu dituen etengabe, denboran zehar eta esparru guztietan: politikan, erlijioan, hezkuntzan, lanean, gizartean, hedabideetan, kulturen, hizkuntzan, etab. Egin egunkaria, Egin irratia, Ardi beltza, Euskaldunon Egunkaria eta beste hamaika adibide, atzoko kasuak dira, besterik ez.

Hortaz, nik esanen nuke, herri kontzientzia gabezia honetara iritsi izana ez dela inolaz ere harrigarria; arrazoi sendoak izan dira honaino iritsi ahal izateko. Baina beste ideia bat ere guztiz garbi daukat, alegia, herri batek edo nazio batek nekez lortuko duela bere IZATE OSOA, hau da, bere independentzia edo burujabetza, lehendabizi ez bada hasten esnatzen jendearengan herri kontzientzia bizi, fermu eta zabal bat.

Bukatzeko, bada, esanen nuke, Euskal Herriaren burujabetasuna amesten dugunok, lan mardula dugula oraindik alor guztietan, herritar askoren kontzientziak esnarazi eta berpizten.

Lotsaren hesia

Luis GARDE

Heroitzat jotzen ziren hesi hura gairatzen auzartzen ziren iheslariak. Mundu batetik bertzera, askatasunarik gabeko herrialde batetik ustezko askatasunaren paradisura ihes egiten zutenek euren bizitza arrisku larrian jartzen zuten, eta batzuetan ordaintzen zuten prezioa bizitza hori saialdian galtzea zen. Oraindik ere lotsaren hesia aipatzen badugu, gehienok Berlingo harreresiaz ari garela ulertuko dugu; murru hura izen horrekin mundu osoan ezaguna izan baita, duela berrogeita hamairu urte Ekialdeko Berlingo agintariekei zutenetik. 1989an, duela hogeita bortz urte, harresia eraitsia izan arren, bertze lotsaren hesirik baizik ez dago, nahiz eta Berlingo murruearen hondarrak aspaldi turistentzako atrakzioa diren. Argazkiak ateratzeko prestatutako eszenatokiak, espioiaren filmak gogoratzeko apropos direnak, baita ere souvenirrak erosteko leku bereziak. Lotsagarria, dudarik gabe, nola hesi batek bitan zatitzen zuen hiri hura; berlingarrei, segun eta zein auzotan bizi ziren, estatu-sozialismoaren edo kapitalismoaren bizimodua ezartzen zitzaaien-eta. Oraindik ez dugu asma-

tu, hala ere, Melillan dagoen hesia izendatzeko espresio egokirik. Eta ez kontu berria delako, preseski. Tarteka ateratzen da egunkarietan, gaurkotasan handiagoa edo txikiagoa du, baina erai-ki duela hainbat urte erai-ki zen. Orain baita kameren bidez ere ikus ditzakegu Afrika beltzaren etorkinen saltoak, telebistan, sarean, zuzen-zuzenean kasik. Hesi labandunak, Europa zibilizatuan homologaturik dauden labanak, bizi arriskuan jartzen diren etorkinen gorputzak larriki zauritzen dituztenak.

«Hesi labandunak, Europa zibilizatuan homologaturik dauden labanak, bizi arriskuan jartzen diren etorkinen gorputzak larriki zauritzen dituztenak. Murruak, dena den, material anitzekin eraikitzen dira. Gomazko pilotekin ere bai.»

Murruak, dena den, material anitzekin eraikitzen dira. Gomazko pilotekin ere bai. Ceuta ondoan, hamalau etorkin itsasozan itotzen ari ziren bitartean, agente espainolek ez zieten jaurtitzen haiei gomazko pilotak, ez; egiten ari zirena pilotak uretara jaurtitzea zen, “bi herrialdeen arteko muga markatze aldera”, espainiar agintarieke emandako azken bertsioaren arabera. Inondik ere hainbeste urteetan ezagutu izan dugun “disturbioen kontrako materiala”ren erabilpen arraroena. Baina ez, telebistan egunero ikusten ditugun murru horiek ez omen dira *lotsaren hesiak*.

Irakurleak mintzo

Zugarramurdiko
ihauteetako
kontu batEukene XURIO ARBURUA
(Zugarramurdiar zonbaiten
izenean)

Zugarramurdi eta Urdazubiko haurrek, urtero bezala, ihauteak ospatzeko besta izan zuten Zugarramurdin. Eguraldi txarrarengatik, frontonean egin behar izan zen, eta guraso andana bildu zen han gure haurren zain.

Baina gure haurrak ailegatu aitzin, nor agertuko eta guardia zibilen bi patrol! Eta hantxe, ate aitzinean aparkatu. Zortzi hamar bat guardia zibil frontonaren sartzean plantatu ziren beren zizpa, pistola eta metrailetak eskuetan. Ahalkemangarria, higuigarria eta erridikuloa!!

Zonbait gurasok, haurrak ailegatu aitzin bederen armak gordetzeko erratea pentsatu genuen; baina tentsio gehiago ez sortzeko, irudia zinez bortitza baitzen, haurrak ailegatu baino lehentxeago erranen geniela deliberratu genuen.

Hotza eta euriarengatik frontonerat sartu ginen, eta maleruski, ohartu orduko, haurrak atean genituen. Arre-na errateko astirik ez izan eta horra gure haurrek pairatu behar izan zuten ikuskizun trixtea, ahalkemangarria eta surrealista hutsa!!!

Zein azalpen eman haurrei? Nola litezke

gaur egun horrelako jarrerak eta portaerak haurren (eta helduen!!) aitzinean?

Egunero, gelditu gabe, ditugu herrian barna, goiti eta behiti (gasoiak merke dute doike!). Edozein zokotik agertzen diren: guardia zibilak, polizia, foralak eta tarteka jandarmak ere! Kolore guzietakoak hementxe ditugu eguneroko paisaia. Segur, Zugarramurdin baino poliza gehiago biztanleko ez dela bertze nihon!!

Espainiako bandera paratzea ere behartu dute Herriko Etxean, eta hemen sekulan ikusia ez zena, ezta Francoren denboretan ere, orai ikusi behar!! Arazoak ez ziren lekuetan arazoak sortarazten.

Gure eskoletako erakasleak zelatatzen dituzte, haien ikurrak inposatzen dizkigute, egunero haien jazarpena pairatu behar dugu, herrian, mendirat trankil ibiltzerat gan eta han ere non nahi kontrolak jendea nardarazteko, turistak ere kexu; ihauteetan, mendiko bordetan barna bestan ibilki ginelarik, han ere agertu, eta karnetak eskatzen hasi. Zer ez dugu oraino hemen ikusi behar?

Murritzketak ditugu hezkuntzan, osasunean... eta behar ez diren guardia zibil, polizia, arma, patrol eta konpainian gure sosak ederki xahutzen dituzte nihongo konplexurik eta lotsik gabe.

Batzuk bakearen alde egiten duten bizkitartean, bertze batzuk

indarkeria eta inposaketekin segitzea nahia go dute; argi eta garbi ikusten ari gara hemen egunero.

Guk, bakean bizi nahiko genuke.

Egia da, zerbait
aldatu daEkaitz ASTIBIA GOIKOETXEA
(Leitza)

Gurean zer edo zer aldatu dela ikustea asko kostatzen zaion horietarikoa naiz ni ere baina azken aldian inguruan gertatutakoek pentsatzera eramanez eta ondorio hau ateratu dut: zerbait aldatu da, egia da.

Azken aldian Leitza aldean espainiar gobernuak dituen morroiak finenak gogotik egin dute lan. Betiko autoan, betiko uniforme berde berdina eta betiko jarrera lotsagabe eta harroa erabiliz egin dute, baina dagoeneko ohituta gauzkatzen metodoak alde batera utzita. Papera eta boligrafoa armatzat hartuta eta esku artean duten argazki edo bideoen batekin lagunduta espainiar erreinu zaharkiturantz 12.000 euro bildu dituzte.

Hau da aldatu dena, hau da gobernuak hartu duen bide berria. Kolpeak isunengatik aldatu dituzte eta ubeldutan kontatzen genuen errepresioa dagoeneko euren zenbatzen gabilta. Espainiar gobernu-

ak erakutsi digu zein den bere bide berria Euskal Herriaren asimilaziorako, kolpeka isildu ez duen herria zigor ekonomikoekin isildu nahi du.

Ez dut kasualitateetan gehiegi sinesten eta pentsatzen hasita nago orain dela hilabete batzuk Barne Ministroak, Jorge Fernandez Diazek, Leitza egindako bisitak zer ikusia eduki duela bat bateko aldaketa honekin. Badaukat hau pentsatzeko arrazoi bat baina gehiago eta bat azpimarratzearen... hau esango nuke: Leitza kuarteleko okupak ez dira inoiz izan bigarren planoan egotearen maitale. Nahia go izan dute begiraden erdigunean egon eta pelikulako izar izan. Horretarako imajina ezinezko gauzak egitera iritsi dira. Azken urteetako larriena atentatu baten simulakrua.

Honelako istorioak medio herri honek behin baina gehiagotan esan du nahikoa dela; behin baino gehiagotan egin du bere alde hemendik leloa eta oraindagoan ere ez da ezer aldatuko. Gure zaharrek esaten diguten bezala, betiko lepotik burua. Eraso berri honi, aurreko askori bezala, herri gisa erantzun diogu: elkartasunez, auzolanean eta inoiz baina sinemen handiagorekin. Lehenengo zita martxoaren 29an izango dugu iluntzeko 19:00etan egingo den manifestazioan.

Ez nuke agurtu nahi azken gauza bat esan gabe uniformedunei eta

baita gorbatadun agintariei ere. Bidali nahi du zuen guztia: ministroak, poliziak, ejertzitza eta baita erregea bera ere makulu eta guzti, denei esandako berbera esango diegu: ez zarete ongi etorriak.

Utzi pakean Leitza! Ditzela!

Pediatra
euskalduna
Goizuetan

Unai MIRANDA (Goizueta)

Edononorentzat bere medikuak arekin konfidantza izatea oso garrantzitsua da. Hizkuntza berdina hitz egitea lagungarria da zalantzarik gabe konfidantza hori irabazteko.

Goizuetako neska mutikoek ez daukate beraie pediatrarekin beraie hizkuntzan mintzatzeko aukerarik. Hain garrantzitsua den medikuarekiko harremana beti bitartekoren baten bitartez egin behar du, eta honek medikuari, berez hain zaila den diagnostiko zuzena egiteko lana zaildu egiten dio.

Gurasoentzat oso garrantzitsua da gure seme alaben pediatrarekin konfidantza osoa edukitzea eta haurrak haunditzen diren heinean beraiek ere konfidantza hori mantentzea. Baina jakina hizkuntza berdina ez hitz egiteak baldintzatu egiten du hain garrantzitsua den harreman hori.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttiipi.net
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Poema bakoitzari ehun eta berrehun buelta ematen zaizkio. Poema bakoitzan, eta berdin da luzea edo motza izan, hor dago zure bizitza osoa: irakurri duzun guztia, garatu duzun esperientzia... Nik 'tailerra' deitzen diot egiten dudanari. Poemak piezak balira lantzen ditut. Denak ezberdinak dira, poema banak bere mekanismo propioa duelako».

Luis GARDE
Doneztebeko olerkaria
D. NAVARRA 2014.03.03



«Hurbiltasuna garrantzitsua da, baina argi da elkargoek gero eta pisu handiagoa izanzen dutela. Bozkatzeko molde berrian ere ageri da, herritarrek zuzenki hautatuko dituztelakoan elkargoko ordezkariak. Eta jokoan dena, horretara goaz, ahalmenen bateratzea da. Lanpostuak metatzen ari dira zerbitzuetan elkargoen handitzearekin. Beharko dira batu».

Christine BESSONART
Senpereko auzapeza
BERRIA 2014.03.11

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zeniguke zure burua?

Neska gazte eta bertsolaria bat.

Zein zaletasun dituzu?

Bertsolaritza, lagunekin egotea eta lanak egitea.

Ornoz-Mugairikoa ala baztandarra sentitzen zara lehenagotik?

Baztandarra.

Bertsolaria, berez sortutakoa ala ikasitakoa?

Bietatik pixka bat.

Bertsotarako lagun bat?

Alazne Untxalo.

Bertsotan oholatza gainean ala mahai inguruan?

Oholtzaren eta mahai inguruaren arabera.

Nori botako zenizkio-ke gustura bi bertso eta zer errateko?

Barcinari, Burgosera gaiteko errateko.

Zer da zuretzat

Bardoak?

Egitan bertsolaritza errepresentatzen duena eta egitan bertsolarioi bertsotan

segitzeko indarra eta gogoia ematen diguna.

Zer du faltan eta zer soberan zure herriak?

Soberan kuartela eta faltan euskaraz solastea.

Zein dira Baztango 19 urteko neska baten kezka nagusiak?

Etorkizunean zer egin, zer ikasi...

Ametz bat?

Bertsoaz gozatzen segitzea eta emakumea izan arren, bertsotan segitzea, emakumea ukitzek uztan dutelako.



Amaia ELIZAGOIEN → Oronoz-Mugairiko bertsolaria

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

zalain
JATETxea, RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
www.zalainjatebisa.com

KONPONKETAK
ere egiten ditugu

BORTZIRIAK
expert

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → DONEZTEBEN FITE IREKIKO DUTE BIGARREN ESKUKO LEHENENGO DENDA

Lagun-Bide Zerbitzuak enpresa sozial eta solidarioa aurkeztu du Bidelagunek

Bertze lanen artean, bigarren eskuko arropa bilduko dute eskualde osoan 15 edukiontzien bitartez



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Bidelagun elkarteko Mixel Gereka, Juana Mari Azkarate eta Isidro Herguedas

TTIPI-TTAPA

Bidelagun elkarteak gizarte konpromiso berri bat hartu du: *Lagun-Bide Zerbitzuak* izeneko enpresa sozial eta solidarioa martxan paratzea. Martxoaren 5ean elkartearen egoitzan egin zuten aurkezpenean jakinarazi zutenenez, «behar gehien dituztenen artean lanpostuak sortzea» da helburu nagusia.

Bidelagun elkarteko Isidro Herguedasek aipatu zuenez, proiektua ez da ideia berria: «Duela urte batzuk zenbait pauso ematen hasi ginen *Centro de Inserción Sociolaboral* delakoa

eskualdean martxan paratzeko asmoarekin. Bilerak egin genituen, baina ez zuten fruiturik eman: batzuk «ez zela dirurik», bertze batzuk «diru publikoarekin ez dela esperimentatzen» erranez, eta denetan borondate falta». Laguntza publikoak gero eta murriztagoak izaten ari zirela, ildo horretatik ez zutela deus erdietsiko eta beharrak gero eta handiagoak zirela ikusita, «gure kabuz mugitzea erabaki genuen

erantzun bat emateko asmoarekin» zioen.

Enpresa sozial eta solidarioaren helburu nagusia eragin soziala izatea dela aipatu zuten, etekin ekonomikoa lortzea baino gehiago; «ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen ditugu modu ekintzaile eta berritzailean; ortzen ditugun irabaziak helburu sozialak lortzeko erabiltzen ditugu eta elkarrekin modu arduratsu eta gardenean kudeatzen dugu, langile, bezero eta

interes-taldeen inplikazioa lortuz».


BIGARREN ESKUKO ARROPA BILDU ETA SALDU

Lagun-Bide Zerbitzuak enpresak dagoneko jarduera aunitz eskaintzen ditu. Erraterako, eskualde osoan arropak biltzen dituzte edukiontzien bitartez Zugarramurditik Berraino eta gero arropak berrerabiltzeko asmoa dute. 15 edukiontzi paratuko dira, herri gehie-

netan banatuta eta mantso mantso herri guztietara iritsiko dira. Beran, Lesakan eta Elizondon bina edukiontzi paratuko dituzte eta Etxalar, Doneztebe, Ituren, Oronoz, Irurita, Arizkun eta Erratzun bana.

Bigarren eskuko arropa dendak irekitzeko asmoa dute Elizondon, Donezteben, Lesakan eta Beran. «Dagoneko fite Donezteben irekiko dugu lehenengo denda, Parrokia karrikako 18an» aipatu zuen Herguedasek. Honenkin lotuta, arropa konpontzeko tailerrak egin, trupuak enpresa eta tailerretan saldu... egitasmo ugari dituzte burut. Lortuko den dirua soldatak, alokairuak, aseguruak, gizarte segurantzako gastuak... ordaintzeko erabiliko dute.

Gainera, garbiketarak lan orokorrak, etxeko brikolajea, posta bidalketa lanak eta ingurumenarekiko sentibilizazio eta birziklapen lanak ere eskainiko ditu Lagun-Bide Zerbitzuak enpresak.



EZKONTZA GEHIGARRIA

ttipi-ttapa | 610 zk | 2014.03.20 | 11



MAKILLAJE-ORRAZKERAK

2014an Naturaltasuna izanen da protagonista



Aurtengo andregaien artean ondorengo lau joerak nagusituko dira:

TRENTZAK

Iaz andregai aunitzek txirikordekin apaindu zuten ilea eta aurtan indarra hartuko du orrazkera horrek, espiga itxurakoa askoren aukera izanen da. Joera freskoa, gaztea eta eroso da eta bertsio askotan ikusiko da.

VINTAGE ESTILOKO ILE-APAINGARRIAK

Hain klasikoak ez diren andregaiek, vintage estiloko apaingarri batekin ordezkatu dezakete ile-bildua eta txirikorda. Koroak, bandak eta bitxiak dituzten piezak erabilita nortasuna erakutsiko dute.

LOREAK BURUAN

Loreek ere tendentzia izaten segiko dute. Gainera, garrantzia hartuko dute, iazko lore diskretuak alde batera utzi eta lore haundiagoak erabiliko baitira. Ausartenek lorezko koroa harri eta bitxikiekin apain dezakete.

MAKILLAJE PERFEKTUAK ETA NATURALAK

Andregaien makillajearen ezaugarri nagusia naturaltasuna izanen da. Larruazal distiratsu eta perfektuak lortzeko krema koloreko masailetakoa erabiliko dira eta arrosa koloreko ezpagnetakoa.

ttipi-ttapa
AURREZTU
EZKONTZAKO
GONBIDAPENETAN

100 150€

Koloretan: 1. Ollaia barne
Inprenta barne 1. Gobreak barne
Garrasua barne 1. BEZA barne
Espaio: 10 lan egun

Eskatu informazioa 948 635 458

AINHOA
ILE-APAINGARRIAK

EMAKUMEA - GIZONA

Parroquia, 21 DONEZTEBE | T. 669 552 283

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILAJE E IMAGEN

ANDREGAIENTZAKO
ZERBITZU OSOTUA

Ile-apaindegia
Aurpegi tratamenduak
Gorputz tratamenduak
Manikura
Pedikura
Makillajea

BERRIKUNTZA
ILERAKO APAINGARRIAK

EGUN BEREZIETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Ametzia - DONEZTEBE - 948 450 163
centroimagenamaya@hotmail.com

f

texartu



JANZKERA TRADIZIONALA
Josteko eta brodatzeko gure tailerra daukagu
San Frantzisko 8 eta 10 • Aste Zaharra • IRUÑA
T. 948 22 64 95 • www.texartu.com

IPINGI Santiago 88
ELIZONDO
T. 948 580 939
info@ipingi.es
www.ipingi.es
ARROPA eta OSAGARRIAK



OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK



Kalash
JOYEROS

%10 DESKONTUA ERAZTUNETAN



Karrioren 6 • BERA • 948 630 751
Merkatarik 7 • DONEZTEBE • 948 451 519

Jantzi tradizionalak

Geroz eta bikote gehiagok erabakitzen dute beraien ezkontza egunean euskal ohiturak present izatea. Antzinako tradizioak izaten dituzte oinarri eta aukeratzen duten arropa ere berezia izaten da: soineko zuriaren eta traje beltzaren tokia, euskal tradizioko ikutua duten jantziek hartzen baitute.


Ezkongaiez gain, gainerako gonbidatuen artean ere, zabaltzen ari da joera hau. Hala, gisa honetako ezkontza batera joaten diren gehienek euskal jantzi dotoreak eramaten dituzte soinean.

Jantziaren oinarria antzekoa izaten den arren, milaka kolore, oihal mota, brodatu... daude aukeran. Horregatik, egokiena espezializatutako denda batera joan eta aurrekontuak ikustea izaten da. Jostunek arropak neurria egiten dituztenez, bikotearen gus-

tu eta aurrekontura egokitutako jantziak egin ditzakete ezkon- gaiek.



ARGAZKIAK TEXARTU



ERAZTUNAK

Bitxi bat baino gehiago

Kolore, material eta apaingarri desberdinez egin liteke... baina ezin uka liteke eraztuna derrigorrezko elementua dela ezkontza batean.

Hainbat kontakizunen arabera, Egiptoko faraoiek ere eraztunak erabiltzen zituzten ezkontza irudikatzeke. Borobil formak maitasunak hasiera eta amaierarik ez duela irudikatzen omen zuen haien ustez. Urreak, berriz, ezkongaien arteko maitasunaren indarra eta sendotasuna adierazten zuen.

Urteen poderioz, moldatzen joan dira eraztunak eta egun, denetarik topatu liteke merkatuan. Bikotearen gustuek zehazten dute normalean eraztunek izaten duten itxura. Hala ere, ezkontza tradizioarekin ge- hiengoak urre hori kolorekoa aukeratzen du, nahiz eta urre zuria eta platinoa ere indarra hartuz doazen.



JANTZIAK

Grisa izanen da gizongaiaren janzkietan nagusi

Gizonezkoek geroz eta gehiago jarraitzen dituzte modak zehaztutako joerak. Horregatik, azken urteetako bildumetan senargaiaren janzkia garrantzia hartuz doa. Denboraldi honetan urdin iluna eta kolore erre eramanen da, baita beltz klasikoa, gris arina eta gris perla ere. Ator zuri edo urdinarekin jantzita look perfektua lortzen da. Grisak dotoreak dira eta oinetako, gorbata edo tximeleta-begizta edo pajarita, ator, txaleko eta mahuka-bikiekin ongi konbinatzen badira, nabarmen estilizatzen dute. Fantasiak ukitua erantsi nahi diotenek lorea edo zapia jar dezakete. Kolore aukeraketa norberaren esku. Aukeratutako janzki mota edozein izanik ere, zapata beltzak eta sokadunak eramatea gomendatzen da.

4 PUNTU GARRANTZITSU

Gizongaiaren janzkia aukeratzeko orduan hainbat gauza kontuan hartu behar dira: ezkontza zein ordutan izanen den, ospakizun mota, estiloa eta andregaiaren soinekoa nolakoa izanen den ere garrantzitsua da. Jantziei dagokionez, bi ezkongaien arteko armonia bilatzea komeni da. Horrela, andregaiaren soinekoa dotorea bada, senargaiarenak ere formala izan beharko du. Estilo informalagoa hautatuko balute, biak orekatuta joatea komeni litzateke.

KOLOREAK

Koloreek ere bat etorri behar dute. Ideia ona izan daiteke gorbataren kolorea eta andregaiaren erramuko koloretako bat berdina izatea.

Bestalde, ezkontza eguerdian bada edota estilo informalekoa, janzki estuagoa eraman daiteke. Arratsalde edo ilunabarrean izanez gero, kolore argiak saihestu behar dira eta urdin iluna edo grafito kolorekoak jantzi. Atorak janzkia baino argiagoa izan beharko du eta gorbata atorra baino ilunagoa.

JUAN J. PIKABEA
SENARGAIENTZAKO TRAJEA
ZURE NEURRIRA
15 egunez



Neurri haundiak
Galtzak eta bakeroak 70 arte
Atorak 56 arte
Jertseak

NEURRIRA EGINDAKO GALTZAK

Amezti z/g · DONEZTEBE · 948 451 670



Giovani Valdi · Roy Robson · Fuentecapala
Serapio Múgica, 11 · 20302 IRUN · 943 612 626



www.capelettimercheirun.com

Aralea
Altzale 32 BERA 948 631 121

Andregaiendako lore-sortak
Eliza edo epailegiko apaingarriak
Kotxeiko loreak

**LORTU PUNTUAK
ZURE EZKONTZA
EGUNAREKIN**




T. 948 451 758 - 689 800 257
Intzakardi, 8 - DONEZTEBE

Anamary
LORABENDA

Eliza eta kotxearen dekorazioa
Ezkontzetarako landareen alokairua
Lore-sortak

Gainera, zure ezkontza
eguneko loreen
erosketarengatik
OPARI SORPRESA bat




iris
loredendafloristeria

Jaime Urrutia - 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO




2014KO EZKONTZARAKO ESKAINTZA BERRIA
PREZIO BEREZIAK EZKONTZA OPARIETAN • AUTOMKO LOREAK OPARI
ILERRAKO LOREAK OPARI • MUTILAN PRENDIDAK OPARI

ESTHER
NARBARTE - T. 948 59 22 00

Andregaien erramuetan espezialistak
Elizen dekorazioa • Serpenti kanolak
Ezkontza oparietan aukera zabala
Arrak • Ilerrako apaingarriak • Ligak








LOREAK

LORE MOTA BAKARREKO LORE-SORTAK, KOLORETSUAK ETA ESTILIZATUAK

2014an gorri, laranja, hori edo urdinek pastel-koloreen lekukoa hartuko dute.

Lore-sorta andregaiaren osagarri nagusienetako bat denez, aukeraketa egokia egiteko garrantzitsua izaten da momentuko joerak ezagutzea.

Andregai erromantikoenentzat zuria eta pastel-kolorea nagusi diren buketak gomendatzen dituzte. Kolore hauek, gainera, denboraldi honetan hain modan dagoen vintage estiloarekin arras ongi doaz.

Bestalde, 2014ko joera indartsuenetako bat koloreen eztanda izanen da. Alde batera utziko dira kolore argiko buket diskretuak. Loreak nabarmentzea nahi dute oraingo andregaiak eta horretarako lore horiak, laranja, moreak eta urdinak erabiliko dituzte.



EZKONTZA ZIBILA izan edo elizaz ospatzeak lore-sortaren aukeraketan ere eragina du. Elizaz ospatzekoa bada, profesionalak neurritz jotatzea eta pastel koloreak aukeratzea gomendatzen dute. Ezkontza zibiletan, berriz, sorta koloretsuagoak ikusten dira.



JANTOKIKO loreei dagokienez, mahaietako zentro begetalek altuera egokia izanen dute, pareko gonbidatuarekin lasai hitz egin ahal izateko. Beste aukera, lore sorta txiki asko jartzea da traba egin ez gero mugitzeko errazak direnak. Kristalak, botilak eta kandelak bezalako elementuak perfektuak dira gaueko ezkontzak argitzeko eta baita eguneko ezkontzetan glamour puntu bat emateko ere. Elementu hauekin jolastuz vintage ukitua edo ukitu abangoardistago bat lor daiteke. Kristal gardenen argitasuna, oso egokia da koloretako harriekin, lur koloreko adarrekin edo tonu desberdinetako loreekin konbinatzeko.




Iruñea - Irun errep. 60km
31760 ETXALAR
T. 948 635 000 | F. 948 635 263
info@etxalar.com
www.etxalar.com



EZKONTZA ZIBILAK

ORAIN AZKUA ARETO BERRIAN EZKONTZA ZIBILAK OSPATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DIZUGU



**EGUN OSOA, INORA MUGITU GABE,
BERTAN PASA DEZAKEZUE:
ZEREMONIA, BANKETEA
ETA DANTZALDIA**

- 275 lagunentzako jantokia
- Ezkontzetako menu aldagarria
- Xoko politak bai kanpoan balta barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terrazan
- Ongi etorri koktela
- Lunch afariak
- Gaua hotelean pasatzeko prezio bereziak taldeentzako
- SUITA OPARITZEN DUGU EZKONTZA GAUEAN



ARMUA JATETXEA



Eskatu gure ezkontzerako menua
Haurrentzako jolas parkea



**OSPATU EZAZU GUREKIN
ZURE EZKONTZA EGUNA**

URDAZUBI
Alferdi auzoa, Km. 3
Telefonoa: 948 599 131

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia



- 350,160 eta 40 lagunendako hiru jangela
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera
- Auto eta autobusendako aparkalekua
- Haurmendako jolasparkea
- Kaketarako leku aproposa

Eskatu gure ezkontzetako menua!!

Alasta Karrika BERA • T. 948 625 475
www.zubiondojatetxea.com

BEOLA
Parranda-Pasarte
Libre

Zure ezkontza egunaren
atondurik bereziak





Negutia, 1 | ALMANDOIZ | T. 948 565 002 | www.beola.com

ENDARA
ZURE MUSIKA



Ezkontzak • Ekitaldiak • Bestak •
Aurren eskaintza berezia

endara **edj's**
deejays

Informazio gehiago: 605 762 580
www.endaradeejays.com

JATETXEAK

EGUN BEREZI BATERAKO MENUA ETA MUSIKA

Gure inguruan ezkontza eguna ospatzeko kalitate handiko eskaintza gastronomikoa dugu eskura.

Banketea da ezkontza egunari ukitu berezia ematen dion elementuetako bat. Gonbidatu eta ezkongaiantzako arras berezia izaten da eta, horregatik, zaindu beharreko kontu ugari pilatzen dira bertan: mahaian antolaketa, ongietorri-koktela, menuaren aukeraketa, musika...

Behin gonbidatu-kopurua finkatzen denean, jantokia aukeratzea garrantzitsua da, egun horretan jatetxean tokia izateko batez ere, azkenetako uzten bada jada erreserbatua egotea gerta baitaiteke.


Jatetxearen aukeraketa gustuen arabera da bai na komenigarria da bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak eta profesionaltasuna kontuan hartzea.

Menua aukeratzeko orduan adituek ongi etorri-koktel arin batekin hastea gomendatzen dute, sasoiko produktu freskoekin prestatutako platerak hautatzea eta denontzat nahiko ezagunak diren osagaiak sartzea. Bazkaria edo afaria den ere kontuan hartu behar da. Gauean eguerdian baino plater arinagoak nahiago izaten dira. Urteko sasoiak ere eragina dauka apetituan, adibidez, hilabete beroenetan menu freskagarriak gehiago estimatzen dira. Bestalde, ezkontza eguna baino lehen menua dastatzea eta jatetxeko arduradunaren gomendioak jarraitzea ezinbestekoa da.

DANTZARA!

Otorduaren ondotik dantzaldia dator eta musikaren aukeraketa ere garrantzitsua da eguna borobiltzeko. Duela urte batzuk jatetxeak berak jartzen zuen orkestra edo DJ-a eta hauek aukeratzen zuten hasierako balsa. Orain, aldiz, bikote askok erabakitzen dute zein izanen den doinu hori. Aukeraketa hau gustuen arabera da.

Monotonia saihesteko dantzaldian arrakasta handiko kanta mantso eta animatuak nahastea komeni da. Horrela, dantzaldiari jarraipena ematen zaio eta gonbidatuak animatuta egonen dira bukaera arte. Gaur egun DJ bat kontratatzea da ohikoa betiko orkestak alde batera utziz.





OPARIAK

Ezkontza baten inguruko opariak bi taldetan banatzen dira: batetik gonbidatuei banatzen zaizkienak daude eta, bestetik, gonbidatuek ezkon- gaiei egiten dizkietenak. Denetariko opariak ba- natzen dira ezkontzetan eta egun horretako oroi- tzapen bihurtzen dira askorentzat. Horregatik, zer- bait deigarria oparitzea gomendatzen dute sekto- reko adituek. Opari horien prezioa ere kontuan har- tu behar da.

Senargaiei egiteko opa- rien artean aukera bat ez- kontzarako behar dute- na oparitzea da: belarri- takoak, lore sorta, oie- takoak, ilerako apainga- rriren bat, korbata... Be- har dutena oparituta di- ruapur bat aurrezteko au- kera ematen zaie ezkon- gaiei eta alferrikako opa- riak erostea ekiditen da.



Intzakardi, 9
31740 DONEZTEBE
T. 948 45 04 00
www.casasdecasa.es

CASAS DE CASA

EZKONTZETAKO KANPAINA 2014

GONBIDAPENAK
Gure gonbidapenak ez dira inolaz aldatzen!
• Klasikoak, modernoak, dibertigarriak...
• Testu pertsonalizatuak
• Katalogoak etxera eramateko aukera
• Murtia doan

OPARI-BONOA 25€
Gonbidapenengatik

EZKONTZETAKO OPARITXOAK
Ezkontzetako oparioran azken berrikuntzak badugu!
• Erakume eta gizonetakoentzat
• Dendan erakusketan zabaldu daude
• Aurrekontuak konpromisorik gabe




HOTEL BAZTAN

Iruflea-Frantzia errep. 52km • 31700 Elizondo
T. 948 580 050 • F. 948 452 323
www.hotelbaztan.com • info@hotelbaztan.com

- Gonbidatuei ongi-etorria emanen dien **aperitiboa** gure lorategietan egiten da, naturaren erdian, bailara inguratzen duten mendiak parean direla.
- Aurrez erabakitako **menua proposamen zerrenda luze** batetik aukeratzutakoa izanen da, sukaldaritza tradizionalaren eta plater berritzaileen arteko bategitea
- **250 laguntzako toki**a duen gure saloi haundian egiten da edo nahiago izanez gero, lorategian karpa bat jartzen ahal izanen da.
- Ondorengo dibertsioa eta dantrakdia ere seguruak izanen dira gure musika-zerbitzuei eta ostatuari esker.
- Bukatzeko zer hoberik **afaritxoa** baino, indarrak berreskuratu eta dibertsioarekin segitzeko.
- Gonbidatuentzako **aparkaleku estali haundi bat** ere badugu, eta gure logeletan gonbidatu eta senitartekoentzako prezio bereziak ere egiten dira.





ARGAZKIAK

Egun haundirako argazkilaria aukeratzeko gakoak

Ezkontzaren antolakuntzan argazkilaria aukeratzeari erabaki garrantzitsuenetakoa bat da. Horregatik, azken orduko sorpresa desatseginak gerta ez daitezkeen, ongi pentsatu behar da nor izanen den argazkilaria.

Oinarrizkoena daukagun aurrekontua, bilatzen ditugun emaitzak eta gero etxean zer argazki ikusi nahiko ditugun kontuan hartzea da. Horretarako argazkilariarekin harreman ona eta komunikazio handia izatea nahi-taezkoa da.

Kontu hauek argi edukita, bikotearen estilora egokitzen dena bilatu behar da. Gustu guztietarako aukerak baitaude, argazki klasikoenetatik berri-tzaileetara. Garbi eduki behar da ezkontza erreportajea zer argazki sartu nahi diren ere. Argazkilari askok adibidez, ezkontza aurretik eta ondotik ateratzen dituzte argazkiak.



KONTRATUA

Kontratu bat sinatu behar da eta bertan argi gelditu behar dira ezkontza aurretik ezkongaien etxeetan argazkiak atera behar diren, zenbat denbora pasako duen argazkilariak ospakizune-an... Irudi eskubideei dagokion guztia zehaztu behar da: argazkilariak bere web orrian argazkiak erabiltzeko, beste ez-kongaiei erakusteko, publika-tzeko... baimena ote duen ere argitu behar da.

E
z
k
o
n
t
z
a
k

Zaldúa argazkilariak

Elizondo - Donostia

WWW.fotozaldua.com

photolekun

Picador Biondi - Argazkilari

Herriko Plaza 4, Bajo
31870 LEKUNBERRI
Tfnoa.: 948504370 - 658737731

TELLETXEA

LESAKA 948.637.201



GONBIDAPENAK

Albistea emateko hamaika modu



Norberak bere kabuz egin ditzake, baina oraindik ohikoena gonbidapenak egiten dituzten denda batera joatea da. Katalogoari begiratu bat eman eta gehien atsegin dutena aukeratu beharko dute ezkongaiak. Gonbidatuei eman nahi dieten informazioa gehitu eta banatzea izanen da azken lana.

Bikotearen irudimena eta gustuak izaten dira muga: gonbidapen klasikoak eta modernoak dituzte aukeran eta nahi adina kolore, neurri, letra, forma eta irudi jartzen dizkiete eskura.

Gomendio bat: ezkontzak bere osotasunean estilo koherentzia izatea komeni da. Adibidez, soinekoa, lore-sorta... *vintage* estilokoak badira, gonbidapenak ere halatsu izatea, tipografia landuekin, erliebea duten marrazkiekin, paper birziklatuarekin... eginak.

BIDEOAK

Ezkontza bideoetarako azken joerak

Azken joeren eta profesionalen lan bikainari esker oroigarri ahaztezin bat lortuko duzue:

- Ezkontzako bideo-gonbidapenak: Ezkontzara gonbidatzeko bideo ttiki bat grabatzen da eta gonbidatuei bidali.
- Ezkongaiantzako web orri pribatua: Ezkontzako bideoa internet bidez ikusteko aukera dago. Ezkongaiak web pribatu batera sar litezke eta gonbidatuekin bertako materiala partekatu.
- Ezkontza aurreko eta ondorengo bideoa: Ezkontza eguneko momentu guztiak grabatzen dira, ezkontza aurrekoak eta baita ondorengoak ere.
- Argazki hoberenekin argazki-muntaia: Ohiko bideo tradizionalaz gain, argazki politenei mugimendua eta musika gehituta osatzen dituzte.
- Filmak: Mugimendu, soinu eta irudiekin emozioak eragiten dituzten bideoak sortzen dira. Filmak bezala editatzen diren bideoak dira.



artlepo
web diseinua
dizitatu grafikoa

Zasargintza 3
Donostia
948 450 478
artlepo@artlepo.com
www.artlepo.com

Gonbidapen pertsonalizatuak zuek nahi duzuen diseinuarekin

web-orriak irudi korporatiboak kartelak katalogoak egutegiak diptikoak logotipoak txartelak oroigarriak

Zure ezkontza gonbidapena pertsonalizatua.

GONBIDAPENAK

amag@nalgostabuzoneos.com

Mailpost Buzoneos Tel. 686 747 713
Aitzurra - Nafarroa

Zuk ere egin dezakezu...
...baina zerbaite gehiago nahi badazu...

bortzirudi
Dizitatu eta publikazioa bidera • Soinu eta argazki publikazioa

Ander eta Gorane

Aukerak, aholkuek eta prezio azko hobeak eskaintzen dizkizugu!

100 gonbidapen 35 euro

bortzirudi@gmail.com • Berts - 948 631 521

INTERVIDEO
ikusentzunezko produkzioak

Erreportajeak bereizmen handian (HD)

- Talde profesional batek egina
- Merkaturako preziorik onenak

1. 948 599 055 M. 609 488 612
Gure egoitza • DANTXARINEA
Mendiuetan, 7 2.Ezk ELIZONDO

EZKONTZETAN ESPERIENTZIA HANDIA DUGU

BERA

GIZARTEA → MARTXOAREN 24 ETA 31N

Guraso Eskola antolatu du Udalak

Benekotasunaz eta autonomiaz ariko dira datozen bi astelehenetan Beralandetan

TTIPI-TTAPA

Drogomenpekotasun prebentziorako planaren baitan, herriko ikas-tetxeetan seme-alabeekin egiten duten lana indartu nahi dute gurasoekin lan eginez. Horretarako, LH5 eta DBH2 mailako gurasoentzako guraso eskola antolatu du Udalak, herriko lau ikastetxeen laguntzarekin. Hiru saio eskainiko dituzte Beralandetan. Lehenbiziko saioa martxoaren 17an egin dute autoritateari buruz.

Martxoaren 24an benekotasuna landuko dute, pentsatzen, sentitzen eta egiten dugunaren artean koherentziarik ba al dagoen ikusiz eta gure barnean mugitzen diren sentimen-

duak, emozioak, sentsazioak eta pentsamenduak aztertuz.

Martxoaren 31n, azkenik, autonomiaz ari tuko dira eta seme-alabeekin dugun komunikazioa hobetzeko baliagarriak izanen diren bi teknika landuko dituzte; entzute aktiboa eta "Ni mezuak".

Orri marka lehiaketa

Liburuaren Eguna hurbiltzen ari dela-eta, liburutegiak eta Kultur Batzordeak orri marka lehiaketa antolatu dute lehen aldiz. Hiru kategoriatan banatuko dira partehartzaileak (10 urte arte, 11-15 urte eta 16tik goiti) eta lanak liburutegian entregatzeko epea apirilaren 11n, 21:00etan bukatuko da.

Orri markako gaia euskal pertsonaiak edo izaki mitologikoak izanen dira. Orri markaren neurria 6x21 cm.koa izanen da. Kategoría bakoitzean saridun baka-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gure Txokoa eta Genaro Taldearen mus txapelketak

Gure Txokoak eta Genaro Taldeak antolatutako mus txapelketak jokatu dituzte martxoaren 1ean eta 9an. Gure Txokoakoan 47 bikotek hartu zuten parte eta Fede Fernandez eta Asier Sarageta beratarrek suertatu ziren txapeldun, Ander Gonzalez eta Xabat Matxikote bigarren, Berako Andoni Martinez eta Mikel Jaurena hirugarren eta Berako Bernar Errandonea eta Asier Larrañaga laugarren. Errealzaleen Genaro Taldeak antolatutako V. mus txapelketan 15 bikotek hartu zuten parte eta Andoni Martinez eta Asier Kalderon suertatu ziren txapeldun. Finalean, iazko txapeldunak izan zituzten aurkari, Joxe Mari eta Joanito Zelaieta anaiak. Hirugarren postuan Xabi Azkune eta Imanol Endara gelditu ziren, Patxi Torres eta *Euskadiri* irabazi ondotik.

rra izanen da eta diploma eta liburu sorta jasotzeaz gain, lan saritu bakoitza editatuko da eta eskuragarri egonen da liburutegian.

Sariak apirilaren 30ean, asteazkena, banatuko dira herri liburutegian. Jasotako orri-marka guztiekin erakusketak egiten da liburutegian.

Martxoko azken larunbata kantari

Martxoaren 29an haur eta gaztetxoek kantari jaialdia antolatu du Euskal Kantuzaleen elkarteak, 18:30ean Kultur Etxean. 19:00e-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Inauterietan giro ederra

Eguraldiaren laguntzarik gabe, baina giro ederrean joan ziren inauteriak. Iñude eta Artzairen kalejiran azken urteetan baino dantzari guttiago izan ziren, Gure Txokoaren partidarekin batera suertatu zelako.

tan, berriz, Bera kantari ekimena abiatuko da Illekuetatik.

Martxoaren 28an, be-

rriz, Estitxu Mentaberri haurrentzako ipuin kontalaria izanen da liburutegian 18:00etan.

Yves Riquena doktorearen
'CHIAPI' METODOarekin
ERRETZEARI UTZI
AKUPUNTURA SAIO
BATEKIN

BERAn - 620 71 94 00
www.metodochiapi.com
metodochiapi@gmail.com

IREKI BERRIA!

ORDOKI
GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA

telf. 637 40 83 20
Kanttonberri, 4 • BERA

Ordutegia: astelehenetik ortzirralera
9:00 → 13:30 / 16:30 → 20:30

ETXERA JOANEN GARA ILEA MOZTERA
13:30 → 16:30
surrez eskatuta

GIZARTEA → MARTXOREN 22 ETA 29AN

Arbolaren Eguna egingen da Gardelkobagoetan

Hamaiketakoa eskainiko da eta lanen ondotik inguruko parajeetara joanen dira monitoreekin

Aitor AROTZENA

Arbolaren Eguna antolatu dute martxoaren 22 eta 29rako Gardelkopagoetan. Lehenbiziko larunbatean, eremua garbitu, piketeak sartu, zerrakura egin eta gisako lanetan ariko dira. Hilabeteko azken larunbatean, berriz, zuhaitzak landatuko dituzte. Bi egunetan hamaiketakoa eskainiko da eta ondotik inguruko parajeetara joanen dira partehartzaileak monitoreekin. Udalak, Beti Gaztek, Irain eskolak, Tantirumairu ikastolak eta Gazte Asanbladak elkarlanean lehen aldiz antolatu dute ekitaldia.

Arnasguneei buruzko tailerrak

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak euskararen arnasguneei buruzko tailerra antola-

tu du Harriondoa Kultur Etxean, apirilaren 2an eta 9an (asteazkenez), 18:30etik 20:30 arte.

Tailer hauek UEMAK Kontseiluarekin, Topagunearekin, EMUNekin, Bertsozale Elkartarekin eta EHErekin elkarlanean sortuak dira, eta dagoeneko Euskal Herriko hainbat herritan eskaini dituzte.

Labur erranda, arnasgunea euskara "berrebian" sentitzen den bilgunea da, inork xaxatu eta eraso gabe "etxeko nagusi" sentitzen den eremua. Tailerren helburua da kontzeptu horretan sakontzea. Tailerrean parte hartzea irekia izanen da interesa duen edozeinentzat. Aitzinetik Euskara Mankomunitatean izen eman behar da 948634125 telefonora deituta edo euskara@bortziriak.org helbidera idatzita, martxoaren 31 baino lehen.

Arantzazura bidaia

San Fermin erretiratu en elkarteak Arantzazura bidaia antolatu du apirilaren 11rako. Goizeko 8etan abiatuko dira plazatik eta Arantzazun gosalduta eta meza aditzeaz gain, goizean Azpeitia eta arratsalde-



ARGAZKIA: MENTXU PEÑAK UTZIA

Bortzirietako emakumeen bosgarren itzulia

Martxoaren 9an, 60 bat emakume bildu ziren Plaza Zaharrean, Bortzirietako emakumeen mendi itzuliaren bosgarren edizioan parte hartzeko. Plazatik abiatuta, Agiñara joan ziren Gardeleko bidetik eta herrigunera buelta, berriz, lkatzulotik egin zuten. Gero, bazkaria izan zuten Kattun eta bertan dokumentala ikusteko aukera ere izan zuten. Martxoaren 8an elkarretaratzea ere egin zen plazan, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren baitan.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Buruz buruko paleta goma txapelketako finalak jokatu ziren

Batzoki elkarteak bigarren urtez antolatutako buruz buruko paleta goma txapelketako finalak jokatu ziren martxoaren 8an. Bigarren mailako finalean Egia-ko Iñaki Altzurik irabazi zion Lesakako Aitor Oartzabal-i (5-10, 10-0 eta 10-3). Lehen mailako final borrokatuan, Urdazubiko Angel Larralde irabazi zion Jorge Etxepeteleku lesakarrari (10-6, 8-10 eta 10-9). Sariak eta txapelak, txapelketako antolatzale nagusia den Felix Santamariaren eta Gislene Alves Martins frontoiko arduradunaren eskutik hartu zituzten.

an Getaria bisitatuko dituzte. Tartean, Urrestillako Larrañaga jatetxean bazkaldutako dute. Bidaia-arako txartelak martxoaren 20tik apirilaren 4ra salgai izanen dira jubi-

latuen egoitzan, 30 euroren truke.

Udaberriko kontzertua

Azken urteetako ohitu-

rari eutsiz, Udal Musika Bandak Udaberriko Kontzertua eskainiko du martxoaren 30ean, 12:00etan Harriondoa Kultur Etxeko Txokobi-ko aretoan.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

Lehenia
Berrantolak
Martxoaren
Jantziak
Pisatzen
kaltzagoria
Beneke plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Enbetea - Auzoa
Barrutia, 34 Lesaka
Tel. 948 637 127

KATUPETEA
KATUPETEA
KATUPETEA
KATUPETEA
KATUPETEA

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 8A

Emakumearen Egunaren inguruan hainbat ekitaldi egin dira

Dokumentala ikusi eta agerraldia egin zuten

Irune eta Itsaso

Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren inguruan ekitaldi ezberdinak egin ziren. Martxoaren 7an, ortziralean, *Pink Saris* emakumeen eskubideen inguruko dokumentala izan zen kultur etxean.

Martxoaren 8an emakumeen eguna zela eta eskubideen berdintasu-

na aldarrikatzeko agerraldia egin eta manifestu irakurri zuten plazan.

Inauteriak giro ederrean

Ortzegun gizen eguneko antzerkiekin hasi ziren inauteriak. Eguraldiak lagunduta antzerkiak karriketan egiteko aukera izan zuten Landagain eskolako ikasleek.

Igandean ere jende andana bildu zen kinto bazkarietara.

Astelehenean 45 bat gazte elkartu ziren La Basquen gosaltzeko eta



ARGAZKIAK: LEIRE TELLETXEA ETA IRUNE ELIZAGOIEN

Giro polita izan da inauterietan

ondotik bi taldetan banatuta, eskean ibili ziren trikitilariak lagunduta. Ilunabarrean pintxoak izan zituzten Elutsan.

Astearte eguerdian plazan moztarroak eta karrozak elkartu eta he-

rriari itzulua eman zitzaion. Ondotik gazteek bazkaria egin zuten Herri Ostatuan eta adinekoek Larraburuan. Beñat akordeoilariak girotu zuen ilunabarra eta aukera izan zen Altxatak

eskainitako opilak janz dantzatzeko. Altxatak saski bat zozketatu zuen astelehen inaute egunean baserriek eskaintzen duten harrera ona eskertzeko eta saria Elixelaira joan da.



ARGAZKIA: ANA INDABURU

Plazan egin zen elkarretaratzea.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Magra txapelketa

Martxoaren 1ean magra txapelketako mus eta partxiseko sari banaketa egin zen Larraburuan. Musean irabazleak Jesus Arribillaga eta Javier Santsinena izan ziren eta partxisean Koro Goienetxe eta Milagros Santesteban. Lau irabazleek magra eder bana eraman zuten. Ondotik 25 lagunek afaria egin zuten.

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barruak eta bitxakak
tel. 666 235 466

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

"TELLETXEA"
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • john.telletxea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 22AN ELIZAN

Iruñeko katedraleko abesbatzak kontzertua eskainiko du

25. urteurrena ospatzen hasiko da abesbatza

Joxean ORTEGA

Abesbatzak aurten bere 25. urteurrena ospatu behar du, eta hau dela eta ekitaldi desberdinak antolatuko dituzte urtean zehar. Hauei hasiera emateko martxoaren 22an, larunbat arratsko mezaren ondotik Iruñeko Katedraleko Abesbatzak kontzertua eskainiko du herriko elizan. Abesbatza hau Nafarroako zaharrena eta garrantzitsuenetarikoa bat da eta Aurelio Sagaseta musikariak zuzentzen du gaur egun.

1813ko gertakariak hizpide igandean

Martxoaren 23an, igande goizeko 11:45ean Jesus Garitacelaya gure herrian 1813an gertatutakoa kontatzera heldu da Herriko Etxera. Dirudie-nez Napoleonen gudarostearen kontra igantziarrak ere aritu omen ziren Berrizaun aldean... Hitzalditxo xumea izanen da, ordu erdikoa eta gaztelaniz izanen da.

Txoznako lanak auzolan moduan aitortuko dira

Bertalde gure herrian taberna eta jate-txe bakarra dagoela kontuan izan eta egunseina-



Ba al zenekien

Heldu da, heldu da, maiatzaren 3a...



UTZITAKO ARGAZKIA

110 haritz amerikano landatu dituzte Zuhaitzaren Egunean

Eskolako haurrek aurten ere zuhaitzen landaketa egin zuten Frain mendian. 110 haritz amerikano landatu zituzten, guraso eta irakasleen laguntzaz. Gero, berendu goxoa izan zuten, Guraso Elkarrekin prestaturikoa.



latuetan egoera honek bestarako laguntzen ez duela ikusirik, udalak hurrengo erabakia hartu du: egoera hau luzatzen eta mantentzen den bitartean, herriarrek txozna bat antolatzen dutenean, egingdako lanak eta sartutako orduak auzolana bezala aitortuko zaizkiela. Hori egin ahal izateko aurrez Udaletxera deitu edo bertara azaldu beharko dute.

Bardoak txapelketako saioa Biltokin

Bardoak bertso ekimenaren baitan, bertso-afaria egingen dute Igantziko Biltokin hilaren 29an. Elizondoko *Lepatanatuek 2* eta Lesakako *Zortziko haundiena* taldeen arteko finalerdietako itzulerako saioa jokatuko da ondotik. Afariaren prezioa 15 eurokoa da eta txartelak

salgai daude Lesakako Arrano eta Igantziko La Villa ostatuetan. Bortzibertsos@gmail.com helbidera idatzita ere erreserbatu liteke.

Kirol Jokuak igande honetan hasi dira

Haurren Kirol Jokuak martxoaren 16an hasi dira eta finala apirilaren 13an Igantzin izanen da.

ARANTZA

GIZARTEA → MARTXOAREN 22AN

Autodefentsa ikastaroa egingen da eskolako gimnasioan

Emakumearen Egunaren harira antolatu dute

Nerea ALTZURI

Martxoaren 8an, bertze urte batez Emakumearen Eguna izan zen. Aldarrikapena eta besta uztartuz, egun horren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dira eskualdean. Erraterako, Bortzietako emakume talde polita bildu zen martxoaren 9an, Lesakan. Emakumearen Egunaren biharamunean, mendi itzulia, bazkaria, bazkalondoa... gusturapasatu zuten eguna. Herriitik ere koadrila bat izan zen.

Bortzietako Jendarate Zerbitzuen Mankomunitateak loturiko egitarauaren barne, martxoaren 22an, larunbat honetan, 10:00etatik 13:00etara autodefentsa ikastaroa izanen da eskolan.

Ekaitza Elkarteko berriak

Larunbat honetan, 20:00etan, Ekaitza Elkar-teak batzar orokorra egingen du. Hainbat punturen artean, junta berri-tzea egingen da, bi urtero behin honako hau aldatzen baita. Bertalde, maiatzaren 18an egingen den Arantzako Mendi Itzulia prestatzen ari da Ekaitza Elkartea.

Elkarteko berri hauen inguruan hurrengo alee-tan jarraituko dugu informazio gaurkotuarekin.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Iragarri bezala, apirilaren 5ean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldia izanen da frontoian 18:00etan, Pelle Ttikik antolatuta. Sarrerak herriko ostatuetan, Igan-tzin La Villa ostatuan, Etxalarren Elutsa ostatuan, Lesakan Izarra



ARGAZKIA: GARBINE GOIA

Makrobiotika ikastaroa

Joan den otsailaren 22an, Ekaitza Elkartean, makrobiotika ikastaroa izan zen Xabier Burgaña adituaren eskutik. Makrobiotikaz jakiteaz gain, platerak sukaldatu eta prestatutakoa jan zuten parte hartu zutenek.

okindegian, Beran Xuga ostatuan eta Sunbilan Ariztigain kanpina-an salgai daude, zazpi eurotan. Adin guzietako haurrek sarrera izan behar dute pailazoaren emanaldia ikusteko.

Bertalde, ortzegun honetan, 17:30ean bas-kulan heldu den ikas-turtearen berri emanen da. Interesa duten gu-ratsoak ager daitezke.

Liztor beltza

Liztor beltzaren inguruko bilkura eta informazio ugari prestatu da eskualdean. Bortzietan, herri bakoitzean kabiak kenduko dituzten taldeak osatu dira. Kabiak ikusten badituzue Herriko Etxera deitu behar da.

UDAL INFORMAZIOA

Udal zergak

Aurten zergak ez igotzea erabakia du Udalak. Beraz, ondoko zerga eta tasa hauek berdin mantenduko dira: kontribuzioak, ura, obra baimenak, kopia, faxak, ziurtagiriak,....

Ez aparkatzeko marra horiak

Behin baino gehiagotan egoki aparkatzeko eskatu dute Herriko Etxetik, baina arazoa ez da nahi bezala moldatu eta horregatik aparkatzea debekatua dagoen lekuetan marra horiak mar-gotzea erabaki du Udalak. Kanpotarrei jakin-arazteko eta bertakoak kontzientziatzeko balio le-zake.

Zakurrak

Zakur aunitz libre ibiltzen da herrian barna eta arriskutsua izateaz gain, zakurrak egiten dituzten kakak eta zaunkak herritarrentzat hagitz desero-soak dira. Beraz, Udaletik bertze behin ere, za-kurren jabeei zakurrak libre ez uzteko eskaera egin diete.

15 ANBARDORRA, S.A.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - etlea 21-22
31780 BERA

IMANOL ITURRIA ZURGINA
Enpresa eta partikular
T: 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

F. LANCHAS
Akutadorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
Jartzea
Mota gurtietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

BERTSOLARITZA → MAIATZAREN 21A ARTE

Bidasoaldeko bertso-paper lehiaketara lanak aurkezteko epea ireki dute

Ekainaren 6an egingen da sari banaketa Berako Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA

Berako kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso eskolak, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, Baztan-Bidasoaldeko 27. Bertso paper lehiaketa antolatu dute. Lanak Berako kultur etxean aurkeztu behar dira, maiatzaren 21a baino lehen, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz.

Parte hartzaileak lau mailatan banatu dituzte:

• **A maila:** 10 urte artekoak. Bertso bat edo bi kopla osatu beharko dituzte. Saria: garaiku-

rra eta 50 euro (lehenengoak) eta 30 euro (bigarrenak).

• **B maila:** (11-14 urte) Bi bertso edo lau kopla egin behar dituzte. Saria: garaikurra eta 100 euro irabazleak eta 70 euro bigarrenak.

• **C maila:** (15-18 urte) lau bertso osatu beharko dituzte. Saria: garaikurra eta 150 euro lehenengoak eta 120 euro bigarrenak.

• **D maila:** 18 urtetik goiti. Gutxienez 8 bertso egin beharko dituzte. Saria: garaikurra eta 200 euro garaileak eta 150 euro bigarrenak.

Bortzirietako bertso eskolako kideek aukeratuko dute epaimahaia eta honen erabakia ezin izanen da gibelera bota. Ekainaren 6an izanen da sari banaketa Berako Kultur Etxean 18:00etan.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Etxeko kontuk taldekoek lortu dute finalera sailkatu ahal izateko lehen puntua Iturenen.

BERTSOLARITZA → BARDOAK 2014 TXAPELKETA

Bigarren faseko saio erabakigarriak jokoan dira

TTIPI-TTAPA

Bardoak bigarren fasea abiatu zen martxoaren 8an Iturenen egin zen saioarekin. 50 bertsozale inguruk segitu zuten merendu oparo batekin akitu zen saioa.

Baztan-Malerrekako Etxeko Kontuk eta Iruñeko Bertze Maldikoak taldeak aritu ziren Iturenen. Saio bizia eta umorez beterikoa eskaini zuten. Bardoak ekimenaren bigarren faseak hainbat lan berri ditu eta horiekin are gehiago sumatu zen talde

lanaren garrantzia. Azkenean, etxeko taldearentzat izan zen jokoan zegoen puntua. Bi talde hauen bigarren saioa hilaren 29an izanen da, Iruñean.

Hori baino lehenago Bardoak taldekako ekimenaren fase honetako bigarren saioa martxoaren 14an jokatzeko zuten Elizondoko Intzan, Elizondoko Lepatanatuek 2 eta Lesakako Zortziko Haundiena taldeek.

Martxoko azken ashteburuan, berriz, Bar-

doen bigarren faseko azken lau saioak jokatuko dira.

Igantziako Biltokin hilaren 29an, bertso-afaria egingen dute eta elizondarren eta lesakarren arteko itzulerako saioa jokatuko da.

Leitzako gaztetxean hilaren 30ean ariko dira Harrapazank eta 12 obario, 11 pedrada taldeak Atekabeltz gaztetxean, 18:00etan egingen den bertso merenduaren ondotik.

Bertze bi saioak Iruñean izanen dira.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

Langile autonomoak

Nekazariak eta mendi langileak

Nominak eta Aseguro Sozialak

Lan-Kontrabutarako laguntzak

Enpresa berri ezberdinen sortzea

Diru-laguntza ezberdinak

Kontabilitateak

IVA eta IRPF

Errenta aitortpenak

Elbarritasun eta jubilazio espedienteak

Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Biltzila, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Itasoa hurbillogi

Begrado finalen
bardoak sailkatzen an
amarekin urin bezain arroski
jarduten dira kontan

948 630 981 - 620 828 757
Itzea, 6 - BERA - NAFARROA

DONEZTEBE

GIZARTEA → EMAKUMEAREN EGUNAREN HARIRA

Mari Carmen Ganboak idatzi du esaldirik politena

Inauteritako mozorro eta karroza dotoreenak ere saritu dituzte udalak eta Doneztebarrak elkarteak

TTIPI-TTAPA

Mari Carmen Ganboa doneztebarrak idatzitako esaldi bat ehun euroko erosketa bonoarekin saritu du Doneztebarrak merkatarien elkarteak. Emakumearen Egunaren inguruan egindako lehiaketara esaldi aunitz aurkeztu ziren eta lan zaila izan dute Doneztebarrak elkarteak esaldia aukeratzeko. 50 euroko zazpi erosketa-bono ere zozketatu zituzten.

Ser mujer no te obliga a luchar por los sue-

ños ajenos, tienes derecho a alcanzar los tuyos propios (Emakume izateak ez zaitu bertzen ametsengatik borrokatzera behartzen, zu-reak lortzeko eskubidea daukazu). Mari Carmen Ganboren esaldi hauxe izan zen saritua. 50 euroko zazpi erosketa-bonoei dagokienez, Cheli Arretxea (Doneztebe), Igone Sarratea (Oronoz), Joxe Puerto Martin (Zubieta), Mari Carmen Martinez (Doneztebe), Jose Ríos Sánchez (Doneztebe), Ino Martiarena (Doneztebe) eta Maitte Mindegia (Doneztebe) izan ziren saridunak.

INAUTERITAKO SARIAK

Bertze aldetik, inauteritako karroza eta mozorro dotoreenak ere saritu dituzte udalak eta Doneztebarrak elkarteak. Mozorrorik dotoreena Cristina Mindegia jantzi zuen Kali Jainko-



UTZITAKO ARGAZKIA

Inauteritako karroza eta mozorro saridunen jabeak, udaletxeko sari banaketan.

sa izan zen. Doneztebeko jatetxe batean afaltzeko 50 euroko bale bat eskuratu zuen. Karrozarik dotoreena berriz, *Las brujas de Zugarramurdi* filma irudikatu zuena izan zen. Saski eder bat jaso zuen koadrilak.

Zine denboraldia akitzeaz

Laister akituko da zinema denboraldia. Zehazki, apirilaren 13an, 16:30ean *Txoriburuak* filma eskainiko dute euskaraz eta 18:30ean *Las brujas de Zugarramurdi*.

Aitzinetik, martxoaren 30ean, 16:30ean *Lepe* eskainiko dute euskaraz eta 18:30ean *Juegos del hambre*. (*En llamas*).



UTZITAKO ARGAZKIA

Esaldirik politena idatzi duen Mari Carmen Ganboak, Kukukadendako Idoia Rekareren eskutik jaso zuen 100 euroko balea.

APARAN, S.A.

ERIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Lizun

GAZTANDEGIA

Sunbilla • Tel: 948 450 862

Gure Haragia

Nuestra Carne

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 8AN

86 lagun bildu zituen Kantu Zaharren Egunak

Mahai inguruan kantatzeko aukera izan zen egun osoan

Maider PETRIRENA

Hirugarren Kantu Zaharren Eguna ospatu zen martxoaren 8an Ariztigain kanpinean. Osotara 86 lagunek izan zuten aukera egun eder eta polit honetaz disfrutatzeko. Eguerdian mahaiari jarri orduko kantuan hasi ziren. Bazkaldu bitartean kantuan, ondoren dantza eta kantuan pasatu zen arratsalde ederra. Angel Mariezkurrena, Alberto Zunzarren, Aitor Ibarra eta Santxotena akordeoilaria aritu ziren kantuan. Horrez gain Iradi eta Maialen Arretxeak eta Saray Bazterrikak

bere emanaldia eskaini zuten, hainbat kanturakin. Ainara Mindegia ere kantu politak eskaini zituen. Afaltzeko tenorea ailegatu baino lehen bi zozketa egin ziren bazkariko txartelaren gibelean zegoen zenbakiarekin. Irabazleak Karnele Mujika eta Josetxo Gago izan ziren. Zorionak biei.

Afaldu eta kantuan segitu zuten gaueko 11k arte, giro ederrean. Bukatzeko, Angel Mariezkurrena antolatzaileak eskerrak eman nahi izan zizkien egun hau posible egiten dutenei eta bertaratutako guztiei. Jaliskok ere Angeli eskerak eman zizkion egingako lan guztiaengatik. Zorionak denei bai na berexiki antolatzaileri. Hurrengo urtean berri.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Jendea mahai inguruan eta Iradi, Maialen eta Saray kantari.



Ba al zenekien

Inauterietako III. argazki lehiaketako irabazlea Amaia Apezetxea izan dela?



UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Herriko mus txapelketan laugarren

Euskal Herriko Mus txapelketako finala jokatu zen martxoaren 8an Heletan. Sunbillako bi bikotek parte hartu zuten, Pablo Maritxalar eta Mikel Arrietak (honen ordeztu Urko Ibarra aritu zen) eta Pattere Galtzagorri eta Ines Obregonok. Azken hauek beraien egunean, Emakumearen Egunean, laugarren postua lortu zuten 128 bikoteen artean. Saria: 500 euro eta AEK-n matrikula urte bat doan.



ARGAZKIA: BIDA IBARRA

Ulibeltzak mendi taldea Xabierrera

Ulibeltzak Mendi Taldeak Xabierrera egin zuen ibilaldia martxoaren 8an. Bederatzi lagunak Artaiztik abiatu ziren eta 40 kilometro mendiz egin zituzten.

FLASH

Ane Petrirena

200 metroko lasterketan Espainiako jubenil mailan txapeladuna suertatu zen sunbilda-rra martxoaren 9an Valentzian, Nafarroako bi errekor berri lortuz.

Ludotekarako hezitzailea

Eskolako Guraso Elkar- teak, udako ludoteka zerbitzuaren hezitzaile- a aukeratzeko arau batzuk prestatu ditu aurtun. Udaletxean bil- du daitezke, mar- txoaren 17tik aitzinera.

Sagardo besta

II. Sagardo besta ospa- tuko da apirilaren 5ean Bustitz ostatuan, 14:00etatik aitzinera. Bakailu tortilla, bakai- lua piperrarekin, txule- ta, gazta intxaurrekin, sagardoa, kafea eta ko- pa. Prezioa: 30 euro eta apuntatzeko epea martxoaren 30ean aki- tuko da 948 627 955 telefonora deituz.

Herreratarrak

Martxoaren 9an hasi zen Izkuen Caja Ruralek an- tolatzen duen BTT txap- elketa. Guztira 8 karre- raz osatua dago. Lehen- dabizikoan parte hartu dute Herreratar anaiek eta 6. eta 3. postuak lor- tu dituzte.

ITUREN

KIROLA → MENDI BIZIKLETAN BIKAIN DABIL HERRITARRA

Jubenil mailako lehen proban hirugarren izan da Javier Sein

Asteburu honetan Nafarroako selekzioarekin aritzekoa zen Espainiako Openeko proba batean Valladoliden

Arkaitz MINDEGIA

Javier Sein, mendi bizikletako herriko txirrindulariak denboraldia hasi du. Aurten, gainera, kategoriaz aldatu eta jubenetan ariko da joan den urteko talde berdinean (orain Seguros Bilbao bio racer du izena lehen Seguros Bilbao zenak). Gogotsu eta indartsu hasi du. Bere lehen karrera martxoaren 9an egin zuen Izkuen, Rural Kutzako kopan eta hirugarren postuan sailkatu zen. Martxoaren 15-16ko asteburuan, Nafarroako selekzioarekin Espainiako Openeko proba batean aritzekoa zen Valladoliden.



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

Enaitzen aldeko kamixetak saltzeko postua jarri zen martxoaren 9ko artisau azokan. Apirilaren 13koan ere berriz paratuko omen dute.

Abarun ostatu-aterpetxea

Azaroan ireki zituen berriz ere ateak Aurtizko ostatuak edo Abarun ostatu-aterpetxeak. Itxura aldaketa eman zioten ostatuari eta besta ezberdinak egin dituzte azarotik honat (bingo dela, San Tomas eguna, karaokea...). Berri-

ki aterpetxearen moldaketa akitu dute eta iada irekirik daude bertako logela guziak.

Martxoaren 15ean, Krys yango talde txekiarak bere emanaldia eskaintzekoa zuen Ostatuan. Aurrerago egitarau eta ekintza ezberdinen berri emanen dute.

Emakumearen nazioarteko eguna

Gure herrietako emakumeek ederki ospatu zuten Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an. Afari eta bazkarien buelta ospatu zuten, horietara bat egunean bertan ez baina hurrengo asteburuan, martxoaren

14an egin zen Aurtizko Abarun ostatuan. Emakume kuadrila bat bildu zen afaltzera goxo goxo eta bapo bapo, umore alai eta ederrean momentu eder bat igaroz.

Doneztebe futbol taldea

Herriko mutil eta neska aunitz ari da Doneztebe futbol taldean jokatzen. Martxoaren 9an partidu batzuk jokatu zituzten plazan 7-8 urteko hurrek, eguraldia lagun zutela.

Artisau eta lanbide azoka

Dagoeneko urte eta hilabete batzuk bete dituen azoka arrakasta handia izaten ari da. Hilabeteko bigarren igandean herriko plazan izaten dute hitzordua artisauak. Gisa guzietako postuak izaten dira, elikagaiak, kamiseta, bellarritakoak, egurrekin landutakoak, bitxiak.... Hurrengoa apirilaren bigarren igandean izanen da, apirilaren 13an.

ATERPE
Alborgea jolasteko eremua
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

LARRALDEA eta LINDOURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak
Dolarea Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA | Telleria auzoa | LEXARQZ | 948 452121 - 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa | LESAKA | 948 637212

Alustiza
ttipi txortela
%10eko DESKONTUA
30etik gorako gastuan

GERTAERAK → NAHI DUENAK ALKATEARI JAKINARAZI BEHAR DIO

Pistetan kalteak eragin dituzte uholdeek

Haizeak zuhaitzak ere bota zituen eta batzuk pista erdira erori ziren, pasabidea itxiz

Mattin LARRALDE

Haurreko egunetako uholdeek (edo batzuk ziklogenesi deitu diotenak) herriko pistetan kalteak eragin dituzte.

Alde batetik, pista batzuetako zolan orain dela urte bat bota zen *gravilla* edo harri xehea urak eraman du zenbait lekutan.

Beste aldetik zuhaitzak ere bota ditu hai-zeak eta bakarren bat pista erdira erori eta pasabidea moztu egin du.

Konpostajeaz hitzaldia eta ikastaroa

Beste aldetik, aurreko alean aipatu genuen bezala, martxoaren 5ean konpostajearen inguruko solasaldia eta ikastaro ilaburra egin zen. Bertan, konpostagailua nola erabili eta konposta egiteko materia organikoa nola sartu behar den azaldu zuten, zer botatzen ahal den eta zer ez, zein hezetasun neurri den egokiena edo zenbat denboraz egiten den gero baratzearan erabilgarri den konposta...

Egun berean konpostagailu batzuk barnatu zituzten, baina norbaitek nahi baldin badi, badaude oraindik banatzeko. Horretarako Mattin Larralderekin

jarri behar da kontaktu-
an eta badiren bitarte-
an emanen dira.

Zaborra erreka bazterrean

Beste aldetik herriko errekan inguruan bakarren batek zaborra (gehien bat plastikoa, kajak, tetrabrikak, etabar...) mukurua eginda utzi du.

Horrelako jendeari zer erran? Bere etxean egitea nahi ez duena, ez dezala herrian barna egin, azken finean denok bizi garen ingurua delakoz eta badaudelakoz horretarako leku egokiak eskura nonahi (birziklatzeko kontenedoreak edo igluak, bertzeak bertze). Etxea garbi edukitzea ongi da eta herria garbi edukitzea ere bai.



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Pistara eroritako zuhaitza goitiko argazkian eta zabor mukurua erreka bazterrean, beheitikoan.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2014 UDABERRIKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kaxinak • kaxinak

Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

Casa Cambra

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 22AN

Herriko ostatuaren urteurrena ospatuko dute

Sagardotegia eta kantu zaharrak izanen dituzte larunbatean

Fermin ETXEKOLONEA

Martxoaren 22an ospatuko dute Zubietako Herriko Ostata Julia Itoizek hartu zueneko urteurrena. Sagardotegiko afaria eta Kantu Zaharrak abestuko dituzte.

Malerreka kantuz

Nahiz eguraldi txarra izan, 40 bat lagun bildu ziren martxoaren 3an Malerreka Kantuz ekimenaren baitan kaleak

kantuz alaitzera. Eurari aurpegi alaia jarritz, giro ona sortu zuten eta herrian bueltaxka eman ondotik estalpean aritu ziren kantari. Taloak ere izan zituzten, Lurdes Elizalde eta Anita Hualdek prestatuak. Txitxilo elkarteak ere parte hartu zuen ekitaldiaren antolakuntzan.

Emakumearen Eguna

Martxoaren 8an Emakumeen afaria egin zuten estalpean. Catering bat ekarri zuten eta hamazapi lagun bildu ziren, goizeko ordu tikiak arte, musikarekin, dantzan eta kantuan.

Konpostagailuen banaketa

Konpostagailuen inguruan, martxoaren 7an egin zen azken bilera informatiboa. Jendea pixkanaka kontzientziazten eta interesa hartzen ari da eta 20 bat lagun bildu ziren. Eskatua zuen jendearentzat konpostagailuak banatu ziren. Hartu gabe gelditu zirenei abisatuko zaie berriz ere noiz hartzen ahal duten.

Julen Santesteban pilotaria txapelkun

Julen Santesteban Bendoirok txapela irabazi zuen Erreka pilota



ARGAZKIAK: FOTO ZALDUA

Julen Santestebanek Mikel Olazabal pilotari profesionalaren eskutik jaso zuen txapela.

elkarteak hamabigarren aldiz antolatutako Malerrekako eskuz banakako pilota txapelketan. Alebin kategoriako finalerako Aimar Sarraatea "er-

di zubietarrari" irabazi zion.

Benjaminetan, Aitor Agesta ere finalera ailegatu zen, baina ez zuen suertarik izan.

DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → ALORRENEARA

Apirilaren 5ean egingen da sagardotegiko ateraldia

Martxoaren 30era arte apuntatzen ahal da, 10 euroren truke

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Txotx egiteko garaia iritsi denez, sagardotegiko ateraldia, apirilaren 5ean izango da. 12:30ean plazatik aterako gara, Alorrenea sa-



ARGAZKIA: IZASKUN GOÑI TELLETXEA

Herriko gazteek joan den urtean sagardotegira egin zuten ateraldian.

gardotegirantz. Bertan menu ederra jan eta sagardo ausarki edan ondoren, besta ederra egiteko aukera izanen du-

gu. Gero buelta goizeko 2:00etan izanen da. Apuntatzeko epea martxoaren 30era arte izanen da eta apunta-

tzen den momentuan 10 euroko fiantza utzi beharko da. Anima zaitetzte, primeran pasako dugu eta!!!!

GIZARTEA → 110 PERTSONA IZAN ZIREN XABIERREN

Denboraldi berrian, parte hartze handia

Denetarikoa
ekintzak izan
dituzte aukeran
martxoan

Fernando ETXEBERRIA

Urteroko hitzorduak izaten dira batzuk, berrikuntzak dira besteak baina badirudi arkupeak elkartekoek gogotsu hartu dituztela guztiak. Denboraldi berriko lehendabiziko irteera Xabierren egin zuten martxoaren 11n eta urtero bezalaxe, elkartekide asko izan ziren bertan, zehazki 110.

Pentsioei buruzko hitzaldiek ere orain arteko arrakasta berarekin segitzen dute. Elizondan eta Beran egin dituzte azkenak eta Eli-

zondon adibidez, 34 pertsona elkartu ziren Patxi Urrutiaren azalpen eta gomendioak entzuteratzen. Mus txapelketako finalak ere jokatu ziren eta finalistek beren lagun eta senideak izan zituzten alboan.

Ezkurran barna

Otsailaren 26an, Arkupeak elkarteko 34 mendizale bildu ziren Ezkurran barna mendi itzuli bat egiteko. Egun euritsua izango zela aurreikusita zegoen baina azkenean, Zuparrobiko kaxkora iritsi arte eguraldia lagun izan zuten. Han elurra hasi zuten, baina berehala eguzkiak hartu zuen lainoen tokia. Ola baserriraino eguzkiak goxatu zieten bidea. Han Mariezku-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA.

Goian, Ezkurran barna mendi ibilaldia egin zuten mendizaleak eta behegian, pentsioen inguruko hitzaldietan elkartutakoak.

rrena anaiek jatekoa eta edatekoa eskaini zieten. 2006an inguru haietan grabatutako "El bosque de las sombras" pelikulararen inguruko xehetasunak eman zizkieten Mariezkurrenatarrek bisitariei. Koldo Serra zen

zuzendaria eta Gary Olman, Paddy Considine eta Aitana Sanchez Gijón aktoreek hartzen zuten parte. Baserria berarenean ere ikusgarria da. XVII. mendekoa Ezkurako jauntxoena izan omen zen.

Datozen hilabeteetan, Valentzia, Donostia eta Aginaga bisitatzeak dira. Pirinioetara ateraldia egingen dute eta Done Jakue bidea ere egitekoak dira, bi taldetan banatuta: etapak urte betean edo bitan osatuz.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

EZKURRA

GIZARTEA → BARRANKAN MARTXOAREN 8AN

55 lagun bildu ziren bertso afarian

Ametz Arzallus, Julio Soto eta Elizagoien ahizpek girotuta

Fernando ETXEBERRIA

Bertso, trikitixa eta pandero doinuek hartu zuten Barranka ostatua martxoaren 8an. 55 lagun bildu ziren, herritarak eta baita Malerreka eta Leitzatik gerturatu zirenak ere. Ametz Arzallus eta Julio Soto aritu ziren bertsoetan eta Irune eta Itsaso Elizagoien trikitilariak lagundu zieten. Emanaldia-

ren ondotik, ederki jan eta edan ondoren afaltzera hurbildu ziren askok kanturako eta bertsoetarako duten abilezia erakutsi zuten. Giro bikaina sortu zen.

Badirudi inauteriak ospatu beharrean, afaria eginaz gustorago daudela herritarrek. Ezkurrangazte gutxi gertatzen direnez, afariko mahai inguru bueltan helduxeagoak ederki pasatzen dute. Bertso afariak izan zuen arrakasta ikusita, seguruenik datorren urteetan ere ohitura berri honekin segiko dute.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Goian Soto eta Arzallus bertsolariak, Elizagoien trikitilariekin. Beheitian afalondoko herritarrek giro bikainean.

GIZARTEA

BAZTAN → IDEA INNOVACIÓN ENPRESA PRIBATUAREKIN SINATU DU BERRIZ ERE PATRONATUAK

Elizondoko Zahar Etxeko gestioa luzatzeko kontratuarekin ez dago konforme LAB

Langileen lan baldintzetan eta adinekoei eskaintzen zaien zerbitzuan eraginik ez izatea espero du

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxean Idea Innovación enpresa pribatu-

tuari kontratua luzatzeko Zahar Etxeko patronatuak hartutako erabakiaren harira hausnarketa karrikatu du LAB sindikatuak. Gestio publikoaren aldekoak direla adierazi dute, «bere sorreratik honat, orain 150 urte Baztango jendarteari eman zaien zerbitzu publiko eta irekia izan den heinean».

LAB ez dago ados pribatizazioak ekarri di-

tuen ondorioekin. «Gestioa pribatizatu eta 5 urtera, lan harremanak txartu egin dira nabarmen, eta zoritxarrez gestio pribatuak atzerapausuak ekarri ditu lan eskubideetan», dio LABen idatziak.

LABek ez du Patronatuaren erabakia ulertzen, ez baitu kontuan hartu Udaletxearen eta langileen iritzia. «Espero dugu dugu hartutako erabaki honek Baz-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lan-hitzarmenaren aldeko elkarretaratzea egin zuten urrian.

tango Zahar Etxeko langileen lan baldintzetan eta adinekoei ematen

diogun zerbitzuan ondorio txarrik ez edukitzea», dio oharrak.

GIZARTEA → DATOZEN HIRU OSTEGUNETAN

Interneti buruzko tailerrak antolatu ditu Guraso Eskolak

Guraso Eskolak antolatu ditu

TTIPI-TTAPA

Internet eta bestelako pantailak izenburupean, tailerrak antolatu ditu Guraso Eskolak. Datozen hiru ostegunetan, martxoaren 27an eta apirilaren 3an eta 10ean egingen dira tailerrak, 14:30etik 16:30era eskolan.

Martxoaren 13an, berri, *Ba al da Bullying-ik gure herrian eta norena da ardura* solasaldia eskaini zuen Ja-

sone Etxeberria orientatzaileak.

Idazkari berria

Iruñeko Cristina Ziauriz da udal idazkari berria. Azken sei hilabeteetan aritu den Joanes Aleman ordezkatu du, honek beste plaza bat lortu du eta.

Ibilgailuen zerga

Ordainketa helbidetatua ez dutenek ibilgailuen zerga ordaintzeko borondatezko epea martxoaren 5etik apirilaren 9ra zabalik dute. Epea bukatuta, errekar-guarekin kobratuko da.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Inauteriak giro ederrean

Disfrazarekin, moztorroekin edo zahagi-dantzan, ederki joan dira inauteriak.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Martxoaren 8a ospatu dute adin guzietako emakumeek

Martxoaren 8an, urtero bezala, Umore Ona elkarteak bildu ziren 37 emakume, goxo-goxo afaltzeko. Zorionak eta muxu bana sukaldari eta laguntzaileari.

ARANO

OSPAKIZUNAK → HARRERA ONA IZAN DU EKIMENAK

Jende ugari ibili da Emakumearen Eguneko argazki erakusketan

Dokumentala ere eskaini zen

Maidar ANSA

Emakumearen eguneko erakusketatik jende ugari pasa da. Argazki ikusgarriekin gozatu dute herritarrek eta harrera ona izan du ekimenak. Dokumentala ikustera gerturatu ziren

lagunak, gutxi izan baziren ere, gustura egon ziren. Gainera, ondoren, kafe-tertulia inprobisatu eta interesgarria luzatu zen Krisek eta Xabik ekarritako bizkotxo banaren bueltan.

Patrol berria

Udalak, Patrol berri bat erosteko erabakia hartu zuen, lehengoak

zituen aberiak ikusita. Dena den, zaharra ere mantentzea erabaki du elurteetako garbiketarako egiteko espreski.

San Roke Elkarteak Batzarra

Martxoaren 8an egindako batzarrean, kuotak eta produktuen prezioak eguneratzea



ARGAZKIA: MAIDER ANSA

Nahiko animalia ugaria izan arren, zaila da azkonarra ikustea, gauez ibiltzen baita batez ere. Zoritzarrez, azken aste honetan, azkonar bat agertu da bide bazterrean hilda.

erabaki zen. Baita plater-garbigailu bat jartzea ere. Bazkide batek baja eta beste batek ize-

na eman duenez, iaz bezala 62 bazkiderekin jarraituko du San Roke Elkarteak.

LEITZA

GIZARTEA → GUARDIA ZIBILAREN JARRERA SALATU DUTE ISUNA JASOTAKOEK

Zenbait ekitalditan parte hartzeagatik isunak jaso dituzte herritarrek

26 isun jarri ditu Guardia Zibilak, denera 10.000 eurotik gorako kostua

JM BARRIOLA

Leitzan, azken hila-beteetan guardia zibilak ezarri dituzten isunak salatu dituzte isuna jaso duten herritarrek. Nabarmena izan da *Maxurrenea herrintzat* ekimena martxan jarri zenetik, *Torre libre* ekimenetan edo euskal preso politikoen eskubideen defentsan egin direnetan, guardia zibilak hartu duen jarrera, ekimen guztietan isunak jarri baitituzte. Isuna jaso duten herritarren esanetan, egoera hau urte askoz bizi izan baldin bada ere, «Barne Ministroa Leitzara «bisitan» etorri zenetik nabarmen areagotu da. Isunak 450 eurotik hasi eta 900 euro bitartekoak izan dira». Denera, 26 isun jarri dituzte eta guztiak batuta 12.150 euroko gastua suposatu dute. Egoera salatzeke manifestazio batera deitu dituzte herritarrek. Martxoaren 29an, larunbatean, eginen da iluntzeko 19:00etan, plazatik hasita «utzi pakean Leitz, diztela» lelopean.

Langabetuen topaketa asteazkenero

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Isuna jaso izana salatu eta martxoaren 29an eginen den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu dute kaltetuek.

zarte zerbitzuen eta Cerdna Garalurren eskutik, «Lan aukerak zabalduz» proiektua aurrera doa. Langabetuen gune bat sortzea zen helburuetako bat eta bete da. Asteazkenero goizeko 10etan Atekabeltz herrigunean elkartzeko antolatu dira eta langabetu guztiak gonbidatuta daude beraien kezkak eta elkarlanak asanblada honetan joratzeko. Lehenengo ikastaroa «Ideia batetik ogibidera» dagoeneko burutu da eta bigarren apirilaren 7, 9, 11, 14 eta 16an eginen dute. 10etatik 13:00etara, negozio bat kudeatzeko behar diren oinarriko ezagutzen berri emanen dute. Interesa dutenek izena emateko kontaktuan jarri behar dute Cerdna Garalur edo Gizarzte Zerbitzuarekin.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Emakume Langilearen Egunekeo ekitaldiak

Martxoaren 8an berdintasunaren aldarria zabaldu zen herrian. Atekabeltzen esaterako, «Tximeletan burdina», indarkeriaren biktima izan direnen testigantza biltzen duen dokumentala, ikusteko aukera izan zen. Horretaz gain, *Martxoak 8. Berdintasunaren aldarria. Leitzako emakumeak hizlari* lelopean hainbat ekimen burutu ziren Erleta eskolan. Hasteko gaiaren inguruko antzezpen bat egin zuten eta segidan, zikloka bildu eta talde bakoitzean hiru emakumek beraien esperientziak azaldu zituzten; autobus txoferra bata, mendizaina bestea, zuzendaria, kirol-arduraduna, fabrikako langilea, kotxe tailerreko mekanikaria, nekazal mundukoa, aizkolaria... Emakume anitzak eta ikuspegi desberdinak hurbiletik ezagutzeko aukera izan zuten. Aurrez, gaiarekin lotutako kanta eta bideoak ere landu zituzten.

FLASH

Udala Goiener kooperatibako bazkide

Leitzako Udala Goiener irabazi asmorik gabeko kooperatibako bazkide egin da. Euskal Herrian burujabatasun energetikoa izatea du helburu eta oraingo energia sortzeko eta kontsumitzeko eredu aldaketa bilatzen dute: batetik efizientzia biltuz eta bestalde, energia berriztagarriei bultzada emanaz.

Independentisten tailerra

Martxoaren 6an Ateka-beltzen bildu ziren Leitzako independentista sareko kideak. Aurretik Euskal Herriaren inguruko galdeketa egin zieten hainbat herritarrei eta jasotako erantzunak aztertuz. Bildutako emaitzek solasaldi interesgarria ahalbidetu zuten. Independentisten sarea indartzeko lanean segitzeko asmoa dute.

Nafarroako egoeraz solasean

Martxoaren 10ean Aitziber Sarasola, Bilduko parlamentariak eskaini zuen solasaldia. Nafarroako egoera izan zuen ardatz eta legealdi honetan eman diren gorabeherak azaldu eta momentuan bizi dugun egoeraren berri eman zuen. Herritarren galderei ere erantzun zien.

GIZARTEA → MARTXOAREN 21 ARTE

Auzolana berreskuratzeko proposamena egin du Udalak

Herritarren zalantzak erantzun eta ekarpenak bildu nahi dituzte

Juana Mari SAIZAR

Udalak auzolana berriro indarrean jartzea proposatu du eta horretarako herriko etxe guztietara gaiaren inguruko informazioa biltzen duen eskutitz bat bidali du. Proposamenaren arrazoiak azaldu dituzte eta denen artean erabaki demokratikoa hartu nahi dute. Horretarako martxoaren 21a arteko epea eman du udalak, alegazioak, galderak, zalantzak, edota ekarpenak egiteko. Alkatea ostiral

goizetan udal bulegoan egongo da edonor hartzeko prest, horrela iritziak kontrastatzeko, elkarrizketa egiteko... aukera emango zaie herritarrei. Denbora horren ondoren galdeketa egin nahi da, berau anonimoa izango da eta astebeteko epean erantzunak bilduko dituzte. Hor ikusiko da herriak zer nahi duen eta hori guztia kontuan hartu ondoren ordenantza prestatuko dute, hala ikusten bada.

Hizkuntza eskubideen tailerra

Aurreko alean aipatu bezala euskara teknikariak eta Aresoko euskararen aldeko taldeak hizkuntza eskubideen inguruko tailerra



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Dantza taldekoak hasi dira oinak mugitzen...

Festetan emanaldia egiteko martxan jarri dira herritarrek dantza taldea osatzu. Ostiraletan elkartzen hasi dira, 17:00etan ginasioan, eta norbaitek hasi nahiko bazu bertara gerturatzea besterik ez dauka. Oraingoz hamazazpi herritar apuntatu dira baina geroz eta gehiago izan hobe! Azken helburua horixe izango da, herriko festetan emanaldi berri bat egitea. laz izugarri gustatu zen eta ea bada zer maila erakusten diguten aurten!

egitea adostu zuten herrian. Martxoaren 26an izango da, udaletxeko lehenengo solairuan, arratsaldeko 19:00etan. Behatokiak eskaintzen du tailerra eta Areson egitearen zergaitia ere azaldu digute: Euskaldunok ez omen gaude gai honen inguruan ia batere informatuak. Guk, euskaldunok, hizkuntza eskubide batzuk dauzkagu eta es-

kubide horiek betetzen ez direla ikusten badugu, salatzeke toki bat ere badugu: Hizkuntza-aren behatokia hain zuzen. Hau guztia azaltzeko eta gure eskubideak zein diren jakin eta hauek aldarrikatzen hasteko, Garbiñe Petriatik, Behatokiko zuzendariak, emango digu jakin beharreko informazio guztia, egin beharrekoa egin dezagun.

Gure esku dago

Gure esku dago ekimena iritsi da herrira eta aresoarrek ere tokia izango dugu ekainaren 8an egingo den giza katean. Pasa den astean egin zen lan taldea osatzeko bilera eta orain herri mailan aurkezpena egitekoan dira. Talde irekia izanik, herritar guztiei parte hartzeko deia egin diete, guztion laguntza eskertuko baita.

GIZARTEA → «EGOERA JASANGAITZA» BIZI DUTE

Euskara bultzatzeko laguntzak kendu dizkietela salatu dute Nafarroako UEMAko udalerriek

TTIPI-TTAPA

UEMAko Nafarroako udal ordezkariak prentsa agerraldia egin zuten martxoaren 12an Leitzan. Nafarroako euskalgintzak bizi duen egoeraren aitzinean «kezka eta haserre» agertu zuten, «Nafarroako Gobernuak, bertze behin, inolako diru-laguntzarik gabe utzi duelako euskara bultzatzeko ekimen eta lan oro».

Udalek azkeneko urteotan Nafarroako Gobernuarengandik finantziazio murrizketa handia pairatu dute, eta horien artean, Euskara Zerbitzuek jasan dutena nabarmendu dute eta salatu dute «urterik urte laguntzak murrizten joan dira, erabat

desagertu arte». Euren ustez, agerian gelditu da «Nafarroako Gobernuak hizkuntza politika argi eta planifikatu bat baduela Nafarroarako: euskara eremu publikotik erabat desagerraraztea».

2013an inolako diru-laguntzarik gabe gelditu dira Nafarroako udalak eta mankomunitateak euskara zerbitzuetako laguntzak garatzeko. Eta 2014rako aurreikuspena ere bera da, «inolako diru-laguntzarik ez jasotzea» azaldu dute.

«Egoera jasangaitza» dela esan dute eta udalez gain, euskalgintzako gainerako eragileei ere eragiten diela. «Nafarroako aniztasunari bizkar eman eta bertako



ARGAZKIA:UEMA

Martxoaren 12an Leitzan egin zuten udal ordezkariak prentsa agerraldia.

hizkuntza sustatzeko politikak bazter utzi ditu» euren hitzetan gobernuak. Bestelako hizkuntza politika bat «nahi eta behar» dutela aldarrikatzeko Iruñeko martxoaren 22ko manifestazioarekin bat egin dute eta herritarrei joateko deia egin diete.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 29AN ANTOLATU DU SAHARAZTAN ELKARTEAK

Saharekiko II. Elkartasun Eguna ospatuko da Oronoz Mugairin

Kalejira, hitzaldia, bazkaria eta musika izanen da egun osoko egitarau zabalean

TTIPI-TTAPA

Sahararekiko elkartasun eguna antolatu du bigarren urtez Saharaztan taldeak, Baztango Udalaren laguntzaz. Martxoaren 29an egingen da Oronoz-Mugairin eta egun osoko egitarau zabala prestatu dute.

- 11:00etan kalejira.
- 11:30ean harrera frontoian.
- 12:00etan hitzaldia: Sahara okupatua. Birtartean, umeen txokoa puzgarriekin.
- 14:00etan bazkaria. (Txartelak salgai izanen dira 8 eurotan haurrentzat eta 15 eurotan nagusientzat Donetebeko Ekaiztan, Arizkungo Dolaetxean, Erratzuko Zubi-



ARGAZKIAK: JUAN MARI ONDIKOL

Erratzuko damak eta Arizkungo hartzarekin adio inauteriari

Inauteri aldiari akabaila eman zitzaion data ofizialetan. Elizondon asteburuko tanborrada, mozorroak eta karrozak ibili ziren. Astearte Inaute egunean Damak eta mozorroak ibili ziren Erratzun danbor soinuak hedatuz (argazkian) eta Hartza eta hartzazaina Arizkun. Ilbeltzetik hasita kasik asteburuero han eta hemen saltoka eta dantzan ibili diren inauterien azkenak izan ziren. Elizondoko Berro auzoan, Lekarozan, Gartzainen eta Almandozan ere ibili ziren gazteak puska biltzen otsaila eta martxoa lotu dituen aste hondarrean.

puntan, Elizondoko Intza eta Pirrinen, Berako Kattaku eta Errekalden, Oronozko Pierresenean, Etxalarko Elutsan eta Lesakako Atxaspin).

- Bazkal ondoren, Fan-

farremifa fanfarrea, La Chula Potra kantaria eta haurrendako marrazki tailerra izanen dira.

- 19:30ean kontzertuak frontoian, Muxu Beltza, Damba, Maria-

nitoz Blai, Trikidantz, Kalera, Emon, Eztanda batukada eta Tirri&Tery taldeekin. Sarrera: 5 euro. Gauez bokatak eta autobus zerbitzua ere izanen dira.

FLASH

Palista lanpostua

Udalaren zerbitzura ariko den palista lanpostua oposizio-lehiaketan atera behar da eta Udalak lanpostu honek interes duen guztiei honakoa jakinarazi nahi die: aurkezteko beharrezko baldintzen artean *lbigailuen eta eraikuntza-makinen gidariendako lan-arriskuen prebentziorako ikastaroa* (20 ordukoa) eginga izatea dago. Hortaz, ikastaro hau egin ahal izateko Eraikuntzako Lan Fundazioarekin harremanetan paratzea gomendatu dute, 948 382 348 telefonon. Martxoaren 24ko astean Iruritako Gizarte bilgunean ikastaroa egiteko asmoa dute baina lehenik izena eman behar da.

Kontzertuak

Ongintzako opera kontzertua antolatu dute Etnografia Museoko Lagunen Elkartek eta Kasinoak martxoaren 22an, larunbatean 20:00etan Elizondo parrokiari. Sarrera 5 euro kobratuko da. Martxoaren 29an, berriz, ganbera-musika kontzertua eskainiko dute Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasleek 19:00etan Arizkunenean.

ANZABAL INMOBILIARIA

- Zurich Aseguruen Autoa, etxebizitza, istripu eta biktza aseguruak
- Lan aholkularitza Normia eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairuak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIATREKIA

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 423 130

OSTATU • JATETXEA

Jaki tipikoak • Etxeko giroa

Iturriotz auzoa • Tfnoa: 948 592 043
ORONOS • MUGAIRI

GIZARTEA → BILDU ETA BAZTANGO EZKERRAREN ALDEKO BOTUEKIN

6,79 milioi euroko udal aurrekontua onartu du Balleko Etxeak

Amaiurko ur-depositoa egitea izanen da inbertsiorik haundiena

TTIPI-TTAPA

6,79 milioi euroko udal aurrekontua onartu du Balleko Etxeak, aldeko 7 botuekin (Bilduko 5 eta Baztango Ezkerrako 2) eta UPNko kontrako 4 botuekin. Bertze bizinegotzi ez ziren batzarrean izan. Kopuru horretatik %8,10 inbertsioetarako bideratuko da, zehazki 550.317 euro.

AMAIURKO UR-DEPOSITOA

Inbertsiorik haundiena Amaiurko ur hornidurarako depositoa eraikitzeak izanen da, 160.000 euroko aurrekontuarekin. Lan hau 2009-2012ko Tokiko Inbertsio Planean sartua dago eta Nafarroako Gobernuak %90eko dirulaguntza emanen du. Bideak eta pistak zola-berritzeko 73.137 euro



UTZITAKO ARGAZKIA

Enaitz Antso oronoztarra Euskal Herriko txapeldun

Burlatako Zugarralde taldean ari den Enaitz Antso oronoztarra eta losu Eskirozek Euskal Herriko kadete mailako eskuz binakako txapela irabazi zuten, klub arteko txapelketan. Martxoaren 9an Gasteizen jokaturako finalean Mugiro eta Bidaurreta taldekideak menpean hartu zituzten. Aipatzekoa da joan den urte hondarrean Nafarroako Kirol Jokoetako txapeldun ere suertatu zirela Antso eta Eskizoz, lehen mailako kadeteen kategorian.

erabiliko dira, ikas-tetxeetan obrak egiteko 30.000 euro (Nafarroako Gobernuak 14.850 euroko laguntza emanen du) eta Elizondoko ikastetxe publikoko leihoak eta jangela moldatzeko 32.000 eta 14.000 euro gastatuko

dira, hurrenez hurren. Elizondoko Erabetako ur-depositua moldatzen 16.000 euro gastatuko dira eta Xalbador eta Gorramendi karriketako urak kanalizatzeko 7.700 euro. Iruritako frontoia moldatzeko 43.921 euro inbertituko

dira eta Oronozko frontoiko komunak moldatzen 14.839 euro. Oihan lanetarako 48.000 euro bideratuko dira eta aisialdirako baratzetarako 17.000 euro (5.638 euroko laguntza dago Feader funtsetik). Giltxaurdiko futbol ze-

laiazen galdara moldatzeko 10.000 euro gastatu beharko dira.

Bertze kapital gastuei dagokienez, Eugiko udalari 30.000 euro itzuli behar zaizkio Erregerenako Mankomunitatearen derrametik, Erratzun erabilera anitzeko aretoa egiteko 15.000 euroko laguntza emanen da, Amaiurko Gazteluan segurtasun neurrietarako 10.000 euro eta Bortzirietako Mankomunitateari 6.330 euro edukiontzia-ak erosteko.

Diru-sarrerei dagokienez, bertze erakundeen transferentzien bidez 2.832.890 euro jasoko ditu Baztango Udalak, zerga zuzenen bidez 2.005.600 euro, 797.850 euro tasen bidez eta 484.739 euro ondarearen eta herri-lurren ingresoengatik.

Gasturik handiena langilegoarena izanen da, 2.432.365 euro (%35,82) eta ondasun arruntak eta zerbitzuak ordaintzeko 2.297.250 euro erabiliko dira (%33,83).



SENA tel
Telecomunicaciones
Tel: 848 410 500 www.senatel.es



Satellite bidezko Internet instalatzaileak
Benetazko 20 mega, hilean 25,90€tik aurrera
Jarri ezazu Internet zure etxean, kokapena arazoa izan gabe

CANAL+
Gurekin abonatu zaitez futbol guztia ikusteko eta bi sarrera eramango dizkizugu Osasuna zelaian ikusteko

Telebista antenen instalazioak eta konponketak

Atezain automatikoak

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 22AN EGINEN DA ELIZONDON

Gazte Eguna ekitaldiz gainezka dator aurten ere

Gaztetxeko aterpean bazkaldu ondotik kontzertuak izanen dira Ilargin, Intzan eta frontoian

TTIPI-TTAPA

Baztango Gazte Eguna ospatuko dute martxoaren 22an Elizondon. Egun osoko egitarau zabala prestatu dute gazteek.

- 11:00etan Break dance & Graffiti erakusketak.
- 14:00etan bazkaria Gaztetxeko aterpean. Sarrerak Intza eta Zubipuntan.
- 17:30ean kontzertua Ilargin: Eztanda batu-kada.
- 18:30ean kontzertuak Intzan: Su-etena eta Sofokaos.
- 22:00etan kontzertuak frontoian: Barniz x la nariz, Arkada, Odolkiak ordainetan, A kas-karla eta Oharkabeta-deekin.
- 02:00etan DJ-ak Gaztetxean. Juliaen-K, Rodri, Txoni eta Hunnai.

Polizia jazarpena salatu du Sortuk

Baztango Sortuk azken egun hauetan Baztanen eta batez ere Elizondoko Baztan Berri eta Erlategi auzoetan hautemandako kalez jantzitako polizien operatiboa salatu du. «Ope-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Jose Ramon Sarratea suhiltzaile erretiratua omendu dute

Martxoaren 7an ospatu zen Suhiltzaileen Eguna eta aitzaki horrekin, joan den urtean erretiratutako Nafarroako Larrialdi Agentziako bortz suhiltzaile omendu zituen Nafarroako Gobernuak. Tartean, Oronozko suhiltzaile parkean aritu zen Jose Ramon Sarratea Elizaintzin almandoztarra. Argazkian oroigarria jasotzen ari den Sarrateak 30 urte baino gehiago eman zituen suhiltzaile parkean, iaz erretiroa hartu zuen arte.

ratiboaren helburua Ezker Abertzaleko militante batzuk dira, gau eta egun beraie gibeletik kalez jantzitako poliziak sumatu baitituzte».

Polizien operatiboa auzoan aldizkatuz dau-den furgoneta eta auto batek osatzen dute eta horiekin bat, polizia kopuru zehaztugabe batek. Ezker Abertzaleko militante hauek jasaten duten jarraipena itogarria dela salatu dute, «etxetik atera orduko kalez jantzitako poliziak gibeletik dituzte; jarraipenak egiten duten edozein mugimendu edo desplazamenduri eragiten die eta, momentu guztiz, etxepean dituzte. Egoera jasanezina da».

Hala, ondoko egunetan polizien operatiboa honek eduki deza-

keen bilakaeraz herri-tarrak ohartarazi eta, bidenabar, «Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera, errepresio

etengabea eta indar okupatzaileen presentzia onartezina» salatu nahi du Sortuk.

Ba al zenekien

Marijuanenea lokal berriaren ate irekitzea egin zuela martxoaren 15ean Baztango Sortuk. Hamar urtez hetsia egon ondotik berritu egin dute eta prest dago erabiltzeko.



APIRILAREN 11 ARTE

Baztandarren Biltzarrerako kartelak aurkezteko epea zabalik

TTIPI-TTAPA

Baztandarren Biltzarra. Eskuarak batzen gaitu. Elizondon, 2014ko uztailearen 20an. Testu hori eraman beharko duen kartel lehiaketa abiatu du aurten ere Baztandarren Biltzarra Elkartek. Apirilaren 11 baino lehen aurkeztu beharko dira lanak, gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz, eta egun horretan 12:00 baino lehen Baztandarren Biltzarra Elkartearen esku egon beharko dute.

50x70 zentimetro izan beharko duten kartelak emateko hauek dira bideak: *Baztandarren Biltzarra Elkartea, 22 P.K. 31700 Elizondo* edo Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean utzi (bulego orduetan). Lehiaketa irekia eta zabala denez, partehartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete.

Sariduna, berriz, apirilaren 11tik aitzinerat emanen da ezagutze-ra. Kartel bakarra aukeratuko du epaimahaiak eta honek 600 euroko saria jasoko du Baztandarren Biltzarra egunean, uztailearen 20an, hain zuzen. Dena den, epaimahaiak kartelik ez aukeratzea ere erabaki dezake. Bertalde, aipatu, uztailearen 21etik aitzinerat, parte-hartzaileek beren kartelak berreskuratu ahal izanen dituztela antolatzaileekin harremanetan jarritz.

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 9AN

Lezeen Eguna arrakastatsua izan da

Urdazubiko
Berraberriko
lezeak ikusteko
aukera izan zen

Margari eta Koro

Gero eta arrakasta gehiago izaten ari du Lezeen egunak. Aurten martxoaren 9an ospatu zen, eta bertze leze-

en artean, Xaretako hiruek ere parte hartu zuten.

Egun berezi honetarako eskaintza ere berezia izan zen: sarrerak prezio erdian, bisita gidatuak, zozketa bat (Urdazubiko "Irigoienea"n asteondar bat), eta bereziena, Berraberriko lezeak ikusten ahal izatea izan zen (leze hau-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Berraberriko lezeak bisitatzeko aukera eman zuten.

ek itxita daude, historiaurreko aztarna garraztsuak dituelako).

Eguraldia ere lagun izan genuenez, karrikak jendez-lepo egon ziren, eta Zugarramurdiko le-

zean 756 lagun sartu ziren (hoietako 225 musoan ere bai). Bisita gidatueta berriz, 91 lagunek parte hartu zuten. Aipatzekoa da, etorritako gehiengo bat Gi-

puzkoarrak zirela.

Bertzalde, hainbertze kotxe goiti eta beheiti, argi gelditu zen gaur egun herrian dugun arazo bat: aparkalekuen eskasia.

ZUGARRAMURDI → BAKAR BAT ERE EZ ZEN LEKUAN

Hiru bandera jarri behar izan dituzte Udaletxean

Inposatutako
ikurren kontra
kontzentrazioa
egin zen
otsailaren 23an
plazan

in arte. Eta hala-jokoa!, ez bat, eta ez bi ez aski izaki, eta hiru bandera jarri behar izan dituzte.

Herritarrek ez diogu kanorerik hartzen halako zintzilikariak paratu

beharizateari. Baina legez trakets bat dela eta, udala hortara behartua izan da.

Hori dela eta, otsailaren 23ko eguerdian, plazan, protesta-kontzentrazio bat egin zen,



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Inposatutako ikurren kontrako pankarta eman zuten.

eta inposatutako ikurren kontrako pankarta bat eman zen. Ez du deus-

tarako balioko, baina bederen egiten ahal zen bakarra, egin zen.

Margari eta Koro

Zugarramurdiko Herriko-etxean ez dugu nihoiz banderarik zintzilika izan. Bestetan karriketan apaingarri ematen diren banderak, horietakoak bai izan ditugu. Eta Andre-Mari egunean udalak mezarat eramaten duen herriko bandera ere izan, badugu. Baina Herriko-Etxean, zintzilika, sekula santan ez dugu banderarik ikusi... ora-



LAPURDI

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 9AN

Anai Arteak omenaldia eskaini dio Didier Rouget abokatari

Ohorezko makila eman zioten otsailaren 20an

Bertze lanen artean, *Le guide de la protection internationale des droits de l'Homme* idatzia du Rouget-ek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Anai Artearen fundatzailetarik den Jean Fagoagak eman zion ohorezko makila Didier Rouget abokata eta Anai Arteako kideari. Parot doktrinaren gehiegikeriei uko egin behar izan die estatu espainolak eta hortara heltzeko egin behar izan den abokat lanaren parterik handiena Rougetek egin du.

Mixel MENDIBURU

Estatu espainola Strasbourgo Europako Giza Eskubideen Tribunalak kondenatu du eta behartu «Parot Doktrinaren» gehiegikeriei uko egitera eta hamarnaka euskal preso politikoen libratzera. Baina nork daki hortara heltzeko zer heinetako abokat lana egin den eta bereziki lan hortako parterik handiena Didier Rouget-en gain zegoela? Bortizkeriarik gabeko eta bakeari buruzko garaipen hori oroitarazi du Anai Artearen fundatzailetarik den Jean Fagoagak ohorezko makila bat eskaini diolarik Didier Rouget Anai Arteako kidea-ri.

Eskubidea, esku ahalduna idatzirik dauka ohorezko makilak, adierazteko horren jabea, Unibertsitateko erakasle eta abokat bezala eskubideetan eta partikulazki giza eskubideetan zinez aditua dela eta gainera, urrutetik etorria izanik ere, bere familia guziaz bezala, errotik euskaldun-dua dela.

UDAL HAUTESKUNDEAK AZKAINEN

ALTXA AZKAINE



Jean-Louis LADUCHE

2. Marie-Laure Roumy. 3. Joseph Daubas. 4. Joséphine Olhagaray-Camio. 5. Jean-Do Etchevers. 6. Karine Dupouy. 7. André Etchegoyhen. 8. Muriel Darizuren. 9. Alexandre Galdardi. 10. Gracie Mihura-Etcheverry. 11. Michel Bressot. 12. Marie-Jeanne Mihura. 13. Jean-Jacques Garnier. 14. Coralie Larroquet. 15. Didier Legagnoa. 16. Élodie Lastra. 17. Guillaume Torres. 18. Jeanne Bommel-Zozaya. 19. Régis Bertrand. 20. Frantxa Arrieta. 21. René Badiola. 22. Fabienne De Saunhac. 23. Julien Coten. 24. Jeanne-Marie Boucon. 25. Guy Lapie. 26. Marie Berquer-Larzabal. 27. Jean-Michel Poitevin.

DENEN GEROA



Jean-Louis FOURNIER

2. Bénédicte Luberriga. 3. Pascal Peyreblanque. 4. Anne-Laure Arruabarrena-Elissalde. 5. Christian Larroquet. 6. Danièle Virto. 7. Luc Alaguillaume. 8. Danielle Albistur. 9. Jean-Michel Jolimon. 10. Agnès Echeverria. 11. Dominique Irastorza-Barbet. 12. Sandrine Escartin. 13. Francis Domangé. 14. Maddalen Narbaits-Fritsch. 15. Arnaud Gartner. 16. Mireille Laduche. 17. Louis Salha. 18. Christine Irazoqui. 19. Jean-Louis Azarete. 20. Chantal Garat Sobolak. 21. Jean-Michel Etchegaray. 22. Mireille Poisson. 23. Etienne Elissalde. 24. Agathe Descamps. 25. Philippe Faut. 26. Marie-Anne Inda. 27. Loick Artola.

IDEKI



Anita DAGORRET LACARRA

2. Gorka Taberna. 3. Muriel Picard. 4. Jean-Luc Mendizabal. 5. Martta Arburua. 6. Mikel Berasaluce. 7. Marie-Josée Manterola Lacour. 8. Alain Charrier. 9. Catherine Pargoud Bongard. 10. Jean-Marie Garat. 11. Jone Sadad Quel. 12. Frédéric Carricaburu. 13. Monique Garate Deliat. 14. Xabier Arin Baztarrika. 15. Marie-Noëlle Olazabal Guerin. 16. Dominique Ariszaga. 17. Bernadette Berra. 18. Xalbat Garat. 19. Ihintza Urchegui. 20. Iñaki O'Kelly. 21. Mailys Graci. 22. Dominique Ozcariz. 23. Angela Jorajuria. 24. Peio Cedery. 25. Joana Irigaray. 26. Guy Dupont. 27. Murielle Leizagoyen Galdardi.

UR ERTSI LARRUN



Pierre CLAUSELL

2. Monique Poveda Echegoyen. 3. Daniel Derrien. 4. Sabrina Mundeteguy. 5. Claude Salenave. 6. Ana Roma Luberriga. 7. Andre Irazoqui. 8. Michele Flament-Mahe. 9. Marc Mhlau. 19. Armande Dufau. 11. Jean-Marc Pereira. 12. Karinne Cappellina. 13. Thomas Nielsen. 14. Patricia Betat. 15. Jean-Michel Hiribarne. 16. Georgette Clausell. 17. Laurent Jentet Burquet. 18. Sophie Sirgue. 19. Daniel Luceau. 20. Agnes Lopez. 21. Jean-Michel Arribillaga. 22. Francisca Padron. 23. Olivier Roy. 24. Jocelyne Goyenaga. 25. Ottmar Aussermeier. 26. Monique Verite. 27. Michel Biscay.

GZARTEA → JADANIK OKUPATUAK DAUDEN 21 APARTAMENU DITU

Belaunaldien arteko egoitzaren estrena izan da Bessonarten azken lana

Bi milioi euro baino gehiago gosta da Karrikarte etxea egitea

Franck DOLOSOR

Ondoko egunetan auzapez berria izanen da, Christine Bessonarten kargua uztea eta hauteskundeetan ez aurkeztea deliberatu baitu. Egun hauetan azken lanak egiten ditu pentsatuz nori emanen ote dizkion eskuetan dituen txosten eta proiektu guztiak: bere lehen auzapez ordeari, hautagai eskuindarrari edo ezker abertzaleko zerrendaburuari. Hautetsontzien epaia ezagutu arte lan eta lan ari da Bessonarten gisa hontan berriki inauguratu du Karrikarte belaunaldien arteko egoitza, ondoan zituelarik Georges Labazée

Pirineo Atikantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiko presidentea eta Michel Hiriart Hego Lapurdiko hiriguneko burua.

2.122.025 euro gosta den etxe hortan jadanik okupatuak diren 21 apartamendu eta 100 metro karratuko gela publikoa daude eta bertan bizizale guztiak biltzen ahal dira. Karrika nagusitik hurbil den erai-kin berriari bizia emateko animatzaile bat ibiliko da egun guziz adin-eko jendeari ibilaldiak eginarazteko eta garbitak egiteko. Aste guziz bi aldiz animazioak ere proposatuko ditu. Senperen ez baita xahar etxerik eraikiko ondoko urteetan, agintari-ek eta herriko adinekoen kontseiluak begi onez ikusi zuten alternatiba bat pentsatzea eta hilerriaren aintzinean gelditzen zen lurra

baliatzea holako etxea altxatzeko alokairu biziki merkeak proposatuz senpertarrerik. Etxe hortan bizi direnek esker ona erakutsi eta zinez pozik daudela errazten inaugurazio egunean jorنال ttikiekin ere etxe biziki modernoa baitute beren herrian bertan. Office64 erakun-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Senpere eta inguruetako hautetsiak Karrikarte etxearen inaugurazio egunean.

deak burutu duen proiektua egiteko %18ko diru laguntzak izan dira: 190.982 euro departamendutik, 91.800 euro gobernurutik, 63.661 euro Senpereko herriak emanik eta 24.867 eu-

ro Hego Lapurdiko Hirigunetik. Gaurko egunean, Office64 erakundeak 41 etxebizitza alokatzen ditu Senperen. Aurten 17 gehiago eraikiko dituzte eta bertze 32 heldu den urtean.

UDAL HAUTESKUNDEAK

AGIR AUTREMENT



Pierre-Marie NOUSBAUM

2. Sandra Lissardy. 3. Jean-Pierre Dunogués. 4. Martine Arhancel. 5. Benoît Estaynou. 6. Marie-Jeanne Bereau. 7. Philippe Fournier. 8. Anne-Marie Daugareil. 9. Robert Comat. 10. Maitte Larrañaga. 11. Emmanuel Bereau. 12. Maitte Aroztegui. 13. Arnaud Lacarra. 14. Céline Davadan. 15. Jean-Bernard Dolosor. 16. Agnès Machat. 17. Pascal Dupuy. 18. Chantal Besombes. 19. Xavier Bohn. 20. Malika Forveille. 21. Bruno Ollivon. 22. Evelyne Sestacq. 23. Christian Le Cal. 24. Claire Caudal. 25. Stéphane Rougier. 26. Elisabeth Roussel. 27. Vincent Ahetz-Etcheber. 28. Pierrette Douriboure. 29. Jean-Marie Ibarra.

ELGARREKIN



Dominique IDIART

2. Mirentxu Ezcurra. 3. Guillaume Bergara. 4. Brigitte Ryckenbuch. 5. Martxel Arribillaga. 6. Pierrette Parent-Domergue. 7. Pierre Aincy. 8. Marie Benita Etchevers. 9. Denis Carlier. 10. Martine Aguirre. 11. Xabier Camino. 12. Joelle Archicha. 13. David Gaillet. 14. Christine Perugorria. 15. Sebastien Etcheverry. 16. Geva Sanchez. 17. Patrick Lacroix. 18. Rosine Planes. 19. Jack Feillu. 20. Bernadette Iriarte-Larretchea. 21. Alain Stogoff. 22. Beatrice Desnos. 23. Charles Lafont. 24. Marie Germaine Laborde. 25. Patrick Lamothe. 26. Catherine Berrouet. 27. André Nemery. 28. Elisabeth Planes-Juan. 29. Christian Bonnehon.

SENPERE BAI



Jean-François BEDEREDE

2. Naia Lacroix. 3. Inaki Viquendi. 4. Amaia Gobet. 5. Christophe Jauregui. 6. Eliane Etcheverria. 7. Henri Perez. 8. Joana Haramboure. 9. Artzai Mendiboure. 10. Christine Artola. 11. Franck Dorratcague. 12. Marijo Levy. 13. Txomin Bereau. 14. Agnes Carricaburu. 15. Ioritz De Madariaga. 16. Beronika Zamora. 17. Sebastien Irazoqui. 18. Bernadette Luro. 19. Nicolas Van Meer. 20. Thérèse Laplacette. 21. Haritza Galarraga. 22. Monique Berrouet. 23. Mixel Larretxea. 24. Josiane Valencia. 25. Jakes Fordin. 26. Jenofa Mendiboure. 27. Peio Albistur. 28. Marina Harismendi. 29. Kepa Jau-bert.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Zirikolatz dantza taldearen ihauteriak

Urteak dira Zirikolatz euskal dantza taldeak ihauteriak ospatzen dituela. Aurten ere ez dute huts egin.

SARA

KIROLA → MARTXOAREN 30EAN

Sara Korrika Trail lasterketarekin batera mendi ibilaldia ere antolatu da

25 kilometroko lasterketa bederatzigarren aldiz eginen da

Joana GERENDIAIN

Aurten, martxoaren 30ean, 9.aldiz « Sara Korrika » elkarteak bere traila antolatzen du. 25kmko lasterketa bat da 1443 metroko desnibelarekin. Lehenek lasterketa 2 orenez bukatzen dute eta azkenek 4 orenez. Azken 5 urteetan Fernando Etxegarai beratarak irabazi du. Abiatzea Sarako plazatik eginen da goizeko 9etan. Leku ba-

tzuk gelditzen dira oraindik. Izena ematea interneten egin behar da : www.pb-organisation.com/page21.html

